

IPAR EUSKAL HERRIA

J. M. TORREALDAY - T. M.-OLASO - P. LARZABAL - J. B. DIRASSAR -
P. XARRITTON - D. LANDART - J. HARITSCHELHAR - R. KANBLONG -
J. L. DAVANT - D. PEILLEN

JAKIN sorta

JAKIN sorta

IPAR
EUSKAL HERRIA

J. M. Torrealday - T. M.-Olaso - P. Larzabal - J. B. Dirassar - P. Xarritton -
D. Landart - J. Haritschelhar - R. Kanblong - J. L. Davant - D. Peillen

Editorial Franciscana Aranzazu

© Editorial Franciscana Aránzazu - Oñate.

Depósito Legal: SS 694/69.

Itzaropena irar-lantegietan argitara emana - V. Pradera, 2 - Zarautz

AURKIBIDEA

(horrialdeak)

Atarian: <i>Joan Mari Torrealdai</i>	5
Kontzienziaren eboluzinoa: <i>Telesforo M.-Olaso</i>	29
Euskaldungoaren aldaketak Ipar Eskual Herrian (1900-1970): <i>Piarres Larzabal</i>	41
Eskual Herria Frantziarekin hartuemanetan: <i>Janbattitt Dirassar</i>	47
Euskara eta euskal literatura Iparraldean: <i>Piarres Xarritton</i> .	57
Ipar aldeko euskaldun gazteek zer dioten hegoaldeko Eskual Herriaz: <i>Daniel Landart</i>	61
Eskuara eskoletan: <i>Jean Haritschelbar</i>	64
Gure ekonomiaren hiru pondu: <i>Ramuntxo Kanblong</i>	67
Gure laborantzaz edo nekazaritzaz: <i>Jean Louis Davant</i>	87
Euskal Herriko frantzes idazleak, Pariseko zeruan: <i>Domini-que Peillen</i>	98

ATARIAN

Aldizkari gisa gure lanak azaltzen genituean, kultura-planteamendu oso bat egina genuen.

Teoria alderdia eta antolamenduak, biak aztertu genituan han.

Teoriari gengozkiolarik, hangoa da «ukazio» famatu hura. Alegia, euskal kulturak forma eta tasun asko ukatzen dituala, baina ukapen hori ez dala ezetzkorra. Baietzera lerratzen da derrefente.

«Kanpozalekeria» ukatuz, geutasuna baieztu: hau da jokua.

Antolamendu aldetik, Euskaltzaindia, Idazleen Elkarte, Ikastolak, Alfabetatzea, Unibertsidadea, Argitaldaria, etabar, aztertu genituan. Beti, euskaldungoa lortzen saiatuz.

Sarreraren bat ematekotan, egokiena, han eginikako saiakera bera etor dakioko IPAR EUSKAL HERRIA liburutxo honi. Han aditzera emandako indar gidarien fruitu bat besterik ez da-ta. Testuinguru hartan ulertu behar dala pensatzen dut, beraz; eta handik aterako bagenu, kraska zekiguke, edo, gutxienez, barne-zentzua ahuldu.

* * *

Ukapenari jarraituz, esan dezagun hizkuntzarentzat ez dagoela Aunamendirik. Euskal kulturak muga hori ukatu egiten du. Eta ukatuz beste «zerbait» adierazten. Beraz, gure ukapena, hemen ere, ez da itsua. Ukatze hutsagatik ez da: argi dago ikusi nahi duanarentzat.

Dagokiona baino erru gehiago erantsi ohi diogu geografia-marra horri. Nahi genukeana egiterik ez dugulako, ez ote dugu deus eginen? Liburu honek, nik uste, ozenki dioskula: urbilago ez ba-gaude, ez da «oiala ebakitzen» duan «goraize» horren erruz soilik, Otainorekin esateko.

Urbilketa hau ezurmamitzeko, planifikatze baten beharretan gaude. Ez dugu alegin nekegarri handirik egin. Horregatik, liburu hau estrategia horren barruan epaitu behar dugu. Estrategia hau, erra-zenetik zailenera, maila apaletik gailurreraino, eraman behar ge-nuke.

Liburu honen esangura neurtuaz, eta planifikatze hori pittin bat bederen egokitzeko asmoz, zenbait proposaketa egitea bidezko iru-ditzen zait. Halere, ba dakit, lan hau bildurik burutzekoa dala, eta ez gizon batena; gutxiago nerea. Nik, atari hontan, begiratu arin bat besterik ez dut emango, jakinik, azken hitza ez dala nerea.

Sekretu guzia hau da: mugaz haraindiko eta hemendikoen har-ema-nak sortu, ugaldtu, errotu eta planifikatu. Eta dena, arreta, handia-rekin, gure gaurko baldintzak eta ahaltasunak begi zorrotzez az-tezturik. Honen arabera, hiru mailatan ikusten dut, hasiera baten, gure kultura-lana.

ALDIZKARIAK. Aldizkari herrikoiek, albiste-ematearekin aski lukete gehienetan. Elkarren berririk ez izatea da, izan ere, gure betidaniko gaitza. Senda-ezina dirudi. Baina periodismu-lan hau didaktismoz eta pedagogiaz aurrera eramaten badugu, sendagailua bilatu diogulakoan nago. Oharturik eta ohargabe, ezagutzeak maita-suna, eta maitasunak batasuna baidakarke.

Kultura-aldezkarrietan lan handia egin da. Hoberena, beharbada, al-dizkari-ekipo bat edo beste hego-ipartarrek osatzea. Errebista batek, iraute soila baino gehiago nahi badu, dinamika bat behar du; eta dinamika horrek batasun-mailan beti jarrai dezan, bide aproposa-gorik ez. Lan hau bera honelaxe egina da. Azi bat bezala da hor,

ixilean, ereiten dana. Fruitua, errebistaren (eta honek sortzen duanaren) barne-indar bortitz eta batutzaile hori izanen da.

IKASTOLA. Iparraldeak, eskubide berekin, sartu behar du ikastolaren planifikatzean, hala hizkuntza-arazoan, nola eziketakoan.

Ikastolak, gaur, urri dirala iparraldean? Lagun dezaiegun!

Lege aldetik, bi alderdiok kondizio beretan ez gaudela? Ba dakit. Baina ohar gaitezen *nola* konpondu behar dugun arazo hori aztertzera ez natorrela. Konpondu behar dugula, ez besterik, diot. Beraz, nola joka genezakean jakitea, bigarren epean dator. Lan bateratu bat egin behar dugula onartu eta gero. Onartze hontan da koska, ene iritziz.

Ikastolen Elkarte Nagusi baten bidez eraman behar da asmo hau aurrera. Eta Elkarte honek berak bigarren arazo bat ere hartu behar luke bere gain, ikastolarekin zer-ikusi ba duenez gero: euskera eskoletan.

Legeak, han eta hemen, ez dira bat. (Euskera eskoletan irakatsi dute. IKAS batasunaren aintzinamenduak urbildik ezagutu behar genituzke). Euskerari eman dakizkioken ordu hoiek baliatu behar ditugu.

ALFABETATZEA. Alfabetatzearen ordua ez al da oraindik Iparraldean etorri? Ez bada, laister da.

Hego-herrietan ikusi da, alfabetatzea, kontzienzi-sortzailea dala. Baina, aurretik, kutsapen bat behar du, alfabetatzearen deiarri erantzuteko.

Etorkizun luzea ematen diot alfabetatzeari Iparraldean. Luzatu gaite muntatu behar genuke. Talde on bat ezagutzen dut.

Hontaz gain, hona beste eginkizun polit bat alfabetatzearentzat. Kultura-eskursioak antolatzea. Benetan gure herria alfabetatu nahi badugu, kultura-ibilaldi hauek oso komenigarri ikusten ditut. Edo nahi baduzute, beharrezko. Mendigoizaleak eta besteok mugitzen

gera, bai, Euskal Herrian zehar. Eta halere, ez dugu Euskal Herria ezagutzen. Zergatik? ez dugu programa bat, planifikazio bat, hortarako. Planifikazio bat egitea ez da hain zaila: kultura-planteamendu batzukin aski dukegu, planteamendu horien argitan, gero, galdera batzuk eginaz: herrialdearen kondaira, erriaren gora-beherak, ekonomia, euskeraren egoera, eta egoera horren zergatia, giza-banaketa, etc.

Anitz aberastu eta bildu gaitzazkete ibilaldi hauek. Lizundia adiski-deak gai hau pentsatuagoa du, eta idatzi ere egin du hortaz. Berari zor dizkiot ideia hauek.

* * *

Urbilbide hontan, probintzikoikeria dugu eragozpen. Eta hain zuzen, aitzina egin orduko, probintzikoikeria horixe salatu nahi dut, lehen herrikoikeria salatzeke erabili genuen garratzasun berarekin. Gure zenbait jokabidetan nabarmenki ikusten dut probintzikoikeria. Beste batzutan ez hain agirian. Baina nabarmenki ala ez, gure etxe-zulokeria hori ezabatu egin behar dugu, luzatu gabe.

Ibil gaitezen euskaldungoaren faboretan beti, ez kaltetan. Euskaldungoa aipatu dugu. Alegia, bizkaitarra baino lehen euskalduna naiz. Tontakeria dala esanen du bateren batek proposaketa hau. Bego. Dena dela, (polemika bihurtzeko asmorik gabe), ulertzen da zer adierazi nahi dudana, ezta?

Probintzikoikeria honek (edo «lau-probintzikoikeriak») bi iturri ditu. Bat, informaziorik-eza, eta adoleszentsismoa. Hau dala-ta, beste ismo, joera, barne-indar, bide berri batzuk ez ditugu urrundik ere ezagutzen. Jokabide bat baino gehiago, egoera bat da. Eta honen sendagailua aipatu dugu lehen.

Bigarren iturritik bai ez dala sortzen ur bedeinkaturik. Jokabide ezaguna da. Horien proposamenduetan Iparraldea ez duzu aipaturik ere ikusiko, ez da ezertarako sartzen. Ez balego bezala. Begira, esate baterako: Euskal Herriaren kondairatxo bat irakurri berria

dut. Multikopiatu-rik, 32 folio. Bada, historiogile horrentzat ez dago Ipar Euskal Herririk. Erderaz dago, nola ez.

Adema-Zaldubirekin, probintziak, «lot bitez alkarri» nahiago dugu guk. Elkarri begira jarri behar ditugu. Eta denak maila berean, ez batzuk nagusi eta beste batzuk zerbitzari. Elkartasun hau eta batasun hau inperialismo eta paternalismo bilaka ez dakizkigun, berdintasuna eskatzen dugu. Ez dugu elkar zapaldu beharrik, ez eta inori limosnarik eman behar. Elkar ezagutu, lagundu eta osatu: hori bai.

* * *

Zaharra bezin ez-ezaguna da gure literatura, tamalez.

Zenbaitek hala nahi arren, literatura hau, lantzen eta kategoria hartzen, ez da XX-gn. mendean hasi ez eta XIX-garrenean. Areago: literatura guziek ba dute «urre-garaia» delako bat. Gureak ere bai, eta hain zuzen XVI eta XVII mende horietan jotzen du gailurra.

Literatura nagusi honen hasiera (eta bi mendeko jarraipen diztira-tsu) Ipar Euskal Herrian izan da.

Dakikegunez, euskal literatura idatzia 1545 urteak markatzen du. *Linguae Vasconum Primitiae* da lehen obra. Hasiera argitsua benetan, berandutzaren truke etor balitzaigu bezala.

Eta Dechepareren obrarekin hasitako literatura hau loratzen eta loratzen doa Iparraldean. Maiatza da. Artean, Hegoaldean, oraindik negu gorrian geunden.

Bi menderen diferentzia, alde handia da. Eta baitipat, gizaldi horietan, Mosen Bernat Dechepare bat, Joannes Leizarraga bat, Pedro Axular bat, Arnaldo Oihenart bat, Joannes Etcheberri Ziburuko bat eta beste zenbait, hor ditugunez gero. Lehen mailako idazleak. Maixu eta eredu zaizkigu.

Hego-aldean XVIII-gn. mendean hasiko da literatura-mugimendua, Larramendirekin. Bi mende berantago! Gainera, han euskeraz idazten zan artean, hizkuntza bera da polemika-gai hemen. Han,

mugimendua, ibiliarekin erakutsi zuten; eta guk, hitzarekin, baietz, ibil ditekeala esanez. Esaterako, Baltasar Etxabek euskeraz idatz ditekeala dio. Eta azken froga gisa «Agur Maria» bat eskeintzen digu euskeraz.

Defenditzaile edo apologista hauen jokabidearen lepotik ixekutzen da Joanes Etcheberri Ziburukoa, ahapaldi hontan:

Burlatzen nai Garibaiez,
bai halaber Etchabez,
zeñak mintzatu baitire
erdaraz Eskaldunez.
Ezen zirenaz geroztik,
Eskaldunak hek biak,
Eskaraz behar zituzten
Egin bere historiak.

* * *

Gure literatura zahar hontan ba da zer hautatu. Gaiaren aldetik, eta hizkuntzarenetik.

Omenaldi asmoz, zatitxo batzuk hautatzen ditut. Ez da antologia bat. Ez natzaio barne-ontasunari lotu. Hoberenak diralako ez ditut aukeratzen, beraz. Bakar-bakarrik, eskualde bakoitzetik bana hartzea zan nere asmoa. Eta hautapen hori, esan bezala, omenaldi gisa eskeintzea. Deus da, bere balioa sinbolismuan bilatzen ez badugu. Garbi dago zer nahi dudana: literatura zahar horren maixutza eta eredutza aitortu. Autore zahar horiek klasiku eta bide-erakusle bezala haintzat eta ontzat hartu. Eta honekin batera, autore horien lana zuzenki ezagutzeko egarria sortuko balitzaigu, helburuan geundeke.

Bestalde, idaz-pusketok dinamika elkar-osatzaileen barruan azterten ditut. Hor bertan, eztabaidan darabilzkgun arazo batzuk ikuitzen ditudalarik.

Z U B E R O A

ASTO-LASTERRAK, edo euskera herri baten zerbitzutan

Herri baten bizia eta giroa ikus ditzakegu teatro hauek aztertzen baditugu. Hizkuntza bat herri baten premia guztietarako behar dugu. Damoklesen ezpata buru-gainean zintzilika dugula jakinarazteko, eta jolasarazteko. Herri baten behar konkretu bati erantzuten ikusten dut Pastoraletan euskera.

Zuberoan sortu dira bereziki Pasturalak. Pasturala, herri-teatroa da. Bi era diferent har ditzazke: Trajeria, eta txaribari edo astolas-terrak.

Trajeriak, edo santu, pelotari, errege edo Bibliako edo Historiako gizonen baten inguruan muntatuak izan ohi dira.

Bigarrenak, ostera, jende arruntaren gora-beherak eta eguneroko txikikeriak ematen dituzte gaitzat, betiere farregarri bihurtuaz: sarri ezkontzen dan alargun bat, gizona jotzen duan emazte bat, etabar.

KANIKO ETA BELTXITINA

KANIKO.

Herri huntan ezpeita
egundaino jostatu
Beste airebatean behar dizugu
Egun libertitu.

SATAN.

Ai! urde asto purua
Fantesiaz betia
Hire bizkarrean duk egunko
libertitzeko lekia

Zer tresnak ditukan
Billart baten egiteko!
Beste lanik badik bai
Hire emaztiak hiretako.

KANIKO.

Ene emaztia eta hi
biak algarreki
Ezarriko zutiet
Hortxe zankoz goiti.

SATAN.

Hobe huke emaztearen
nausi izatea.
Eta hura nausitu onduan
Besten desafiatzea.

Beste eszena batean, deabruak zalditan eta elkar-hizketan sartzen dira. Herrikoi-doinu batzuk. Eta gero, deabruak astogainetan datozen eska-leekin mintzatzen dira.

SATAN.

Soñu-egileak emazie
plazer duzien airea
Zeren ene mitilak
Feitean beitira:
Behar duzie dantzatu
Alo ene mitilak!
Ezpaduzie hutsik egiten
zanen zidie pakatiak.
(*Doinua. Dantzan.*)

JUPITER.

Gure dantzako maneraz
Kuntent zireia Satan?
Zuk ere ari behar duzu
Piko bat gurekilan.

SATAN.

Lehen hutsa-egiten dianak
Pitxera pakaturen du
Gogo hunez kolpu bedera
orain edanen dugu.

(Ba datoz eskaleak, asto-gainetan.)

Zer gente zirie ziek
zien asto txarretan?
Ala espiu zunbait,
Erredaziet bertan.

GILENTO.

Jauna, ezkutuzu gu
jiten espiunatzera
Benabai zerbait karitate
Badukegunez jakitera.

JOANES.

Jauna, egun orano
Biak barurik gituzu
Zerbait eman ezaguzu
Otoi, plazer baduzu.

SATAN.

Karitatiaren galtatzera eni
Ziradeia ausartatzen?
Errege bat nizala ni
Enaizie-ia ezagutzen?
Ziek zunbait gormant zirie
Auherr bizi nahiz, ebilten,
Eta ukenak oro, gero
Aisaki xiflatzen.

(Ferragus eta Bulgifer gizandiak sartzen dira.)

FERRAGUS.

Badeia kiristirik batere
Kanpaña huntan errazie

Ene maillu handiaz
Zapa dezadan hebentxe
Jakin ezazie ba dudala
Ehun gizonaren indarra
Eztuzie-ia ikusten ene mustra
Lau kana gora dela?
Kiristi arraza oro
Arrabaskiren dutut
Ezpata eta maillu kolpuz
Oro erhoren dutut.

BULGIFER.

Eguriok, geant asto handia!
Ehiz jauregi huntan sarturen
Nun eztian bidaja egun
Untsa pakatzen.

FERRAGUS.

Ale, eskele fripua!
nulax zaitan mintzatzen!
Maillu hunez zabaltzen ait
Ezpahiz hortik kentzen.
Eztuka ikusten hi
Uñuri bat hizala,
Eta aho kolpu batez
Iretsiren aidala?

BULGIFER.

Enaik ez iretsiko
Zunbat ere behiz usatu
Ezpata hau estomaketi
Nahi deat lantatu.

(Jupiter eta Satan sartzen dira.)

SATAN.

Sakolak aski xipi badutuk
Horrez akort gutuk,
Eta hik Bulgifer
Zenbat beharko duk?

BULGIFER.

Sira, ni gutiagoz
kuntentatzen nuzu
Bi mila libera, aments,
Behar nikezu.
Behar nikezu haiegati
Hamar neskabila puntzela
Gustu dudan oroz
Libertitzeko hariékila.

JUPITER.

Ai eil nik ere banizun
Bizpahiruen beharra
Etzitazu ohartu adesa
Horren erraitera.

SATAN.

Neskabila puntzelak aurten
arraroxe dutuk
Plaza huntan orotan dena
hantxeko hura duk.

JUPITER.

Eztuzu ez mundu huntan
halako neskatarik
Sekula balinba, sortu
emaztearen uzkuzilotik.

SATAN.

Ago hi, Jupiter!
Mintzo hiz korteski!
Horizie ene largabixta
eta soegin hobeki.

JUPITER.

Hura puntzela izanik ere
Eztuzu estonatzeko!
Nik ja eztit nahi
Atxik-azu zuretako.

BULGIFER.

Hura kapable duzu bai
gizunaren joiteko
Eta orano bestalde
Osorik iresteke
Eztakizia egun ere
zertako giren heben?
Ifernialat eramaiteko
Emazte gizon joilen.

(Kaniko eta Belxitin. Gero Santan, Bulgifer.)

KANIKO.

Ah! Ezteia malerus
mundian ene zortea,
Behar dut desesperatu
edo galdu bizia!
Zerentako abiatu niz
berritan ezkuntziari
Emaztea ukeitekoz
Nihauren buruzagi?
Hobe luke gizunak
Bere buria itotzea
eziez eta emazte
gaixto baten hartzea.
Ikusten duzie jente hunak
nola agitu zaitan
Bai eta orano ere
Ni bardin arriskian.
Jende hunak, ba noa
Eniz batere fida
Uken eztezadan, aments,
Publikoan desuhuria.

BELTXITIN.

Nurat juan ote zait
ene senarra Kaniko?

Naski beharko du harek
Orano zunbait panpako.
Hanitx emazte ikusten tit
senarrak buruzagi,
Brida laxoegi uzteak
egiten du hori.
Emazteak eluke behar
izan sobera astaiña,
Jo behar die gizunak
bizkarreti behera.

SATAN.

Arrazu dun Beltxitin
behar dun lahardekatu,
gero hura hil denean
beste bat xerkatu.

SATAN.

Ordian irabaziko dun
Menturaz zerbait tratian
Eta gero gureki
Erreren ifernian.

BELTXITIN.

Ifernian ereik edo gabe
Eztiat ja sofrituren
Hunenbeste nizano
petik diat etxekiren.

JUPITER.

* * *

Zer duzie eta, Jaunak
Hainbeste azantz egiteko?
Haur naiziela Jupiter
eta zer duzie erraiteko?

SATAN.

Eztiat erraitekorik
zientako batere,
bena nun egon zirien
bertan errazie.

BULGIFER.

Jauna, eztutu propi
orai eraiteko zuri
Hartakoz pazentzia
har zazu arrankura gati.

SATAN.

Propi ala ez propi
erradazie fite
bestela aldiz kanpoa
biek har ezadazie.

JUPITER.

Jauna atsulutoki
jakin nahi baduzu
Hortxe etxe gibelean
kakiten egon gutuzu.

SATAN.

(*Asarre.*) Beste manerarik ehiena
Arrazu horren esplikatzeke?
Ziauste, ba diat nik xarpa
Zier, uzkiaren xahatzeko.

BULGIFER.

Lan hortako jauna
Eztuzu aski ezti, hori
Egitekoz in-itzaguzu
zure mihi lureareki.

SATAN.

Errespetiak oro
Nurat utzi dutuzie?
Alo, untsa mintzatzen
ikasi behar duzie.

EZKONTIDEEI ESKALEAK EGINDAKO BERTSOAK

JOANES.

Zer uste duk ene laguna
behar dugula egin?
bertsu bedera behar dioagu
kantatu algarrekin.

GILENTO.

Bai bai, ene laguna
gitian has mementian
Emazteak gizonaren
joitiaren gainian.
Kaniko giza-gaizoa
Zer zaian gertatu!
Emazteak umen hai
Ederki zanpatu!

(Doinua.)

Hori etsenplu huna duk
Arrastako emazten
Ez ahal dire ukenen
axol handirik gizonen.

(Doinua.)

Bena behar bezala
beita orotarik
Eztie usu atzemanen
Hi bezain gizon astorik.

(Doinua. Belxitini begira orain:)

Emazte Mari-martin
Kolare berdia
Uste duna permis dela
gizunaren joitia?

(Doinua.)

Hik merexi huke bai
bizirik erratzea
Eta gero hire errautsak
aizeari urtukitzea.

(Doinua.)

Hire senarra eztun hun
Ielkitzeko bortara
Jenten ahalkez behar din
barnen egon lotara.

JOANES.

Goazen ene laguna
pinta erdiaren edatera
Nik sei ardit ba diat
goazan ostatu hartara.

GILENTO.

Goazan, ene laguna
Hamar ardit ba diat nik
Ordian janen diagu
Sos baten ogia ere.

(Doinua.)

L A P U R D I

JOANNES ETCHEBERRI Sarakoa, edo euskera prolema bezala

Joannes (1668-1749) midikua zan, eta Hego-aldean ere bizi izana da. Oso jakintsua eta ohartua ematen du bere obra guzietan. "Eskuara-ren Hatsapenak" da haren libururik sonatwena.

Gaurkoa dirudi. Etcheberrik batasun-kontzienzia erne du. Gure euskera nahasi hau gogorki salatzen du, elkar aditzeak lanak baiditu. "Eta hau heldu da, Eskualdunek bere hitzkuntza propiala ez istimutan idukiz, eta... eskuaraz iskribatu faltaz".

Gaur, euskera, baserri-girotik kaletartzeak dakarzkian buruausteak ur-bildik ezaguturik, gauza bera diogu.

Euskera biziki sakon ezagutzen du Etcheberrik. Batzutan, Linguistika ikasi duala dirudi. Haren zenbait iritzi, ez pentsa gaur oker datoz-kigunik.

ESKUARA BERTZE HITZKUNTZETARIK ETORKIRIK-GABEKOA DA

Hala-nola egiazko philosophian materia eta forma baitira gorputzaren lehen hatsapenak, eta bere muetan izaute osoa eta perfeta emaiten diotenak; manera berean zein nahi hitzkuntzaren lehen hatsapenak dira hitzak eta gramatika.

Hitzak zerbitzatzen dira materiatzat eta Gramatika formatzat; zeinak hitzei berenez disposizino xoilla baizik eztatenei emaiten baitiote izaute osoa eta perfeta, non haukien bidez hitzkuntza bat bertzeaganik diferent edo bata bertzearen iduritako egiten baitira: Eta zenbatenez hitzkuntzen hatsapenak baitirateke elkarren iduritakoagoak, hanbatenez elkarren artean hitzkuntzek ere dukete partalertasun gehiago, hala nola Italianoak, Franzesak, Gaztelaniak edo erdarak elkarren artean baitute, bai halaber Latinarekin ere nahastakatzen dira, zeren hunen ganik baitute bere etorkia, eta hala haukien artean batetik bertzera diferentzia guti da, eta halatan dira han elkarren iduritako.

Ordea zenbatenaz ere, zein nahi hitzkuntzak bertzetanik baituke parta-
lertasun gutiago, eta baitateke urrunduagoa eta hastanduagua, hanba-
tenaz hatsapenak ere dirateke diferentago eta urrunago, eta gisa hune-
tan batak bertzeaganik ezin duke etorkirik: *Nullius rei causa remota,
reperiri origo potest.* Cic. de Univ.

Hala dira bada gure Eskuararen lehen hatsapenak bertze hitzkuntze-
netarik hagitz diferentak: hala hitzetan nola Gramatikan, hain dira
diferent Hebreotik, Punikatik, Syriakatik, Grekotik, Arabigotik, Go-
doenetik, Alemanetik, hala-nola baita Hebreoa Latinetik, Aita Joseph
Moretek dioen bezala, lib. I, cap. 531. ezen konsidera badetzagu hitzen
sinifikantzak, izenen deklinazioak, verboen konjugazioak eta pro-
prietateak kausituko tugu hagitz direla diferentak Hebreotik, Phaeni-
katik, Punikatik, Graekotik eta Latinetik, bai halaber Godoenetik,
Italianotik, Franzesetik eta Gaztelaniatik, zeren haukien izenak ezbai-
tira deklinatzen eta kasuen diferentziak egiten baitituzte emendailluen
laguntzarekin batean.

Verboen konjugazioak eta hekien ondoko kasuekiko komunztadurak
zein diferentak diren ikusi duzu, noiz eta ere mintzatu baitgara Eskua-
raren zuhurtziaz. Beraz Eskuararen hatsapenak bertze hitzkuntzene-
tarik diferentak direnak geroztikan, Eskuara bertze hitzkuntzetarik
etorkirik gabekoa da: ezen izan balu Eskuarak etorkirik bertze zenbait
hitzkuntzetarik, dudarik gabe hitzkuntza haren ume eta alaba izanen
zen, eta Amak umeari bere iduririk eta propietatetarik komunikatzen
eta iratxekitzen dioen bezala, Eskuarari ere komunikatuko eta iratxe-
kiko ziotzan bere kalitateak eta propietateak, guztiak ezbaziren ere,
zenbait bederen: zeren, *Quodlibet agens intendit producere sibi simile,
quantum possibile est:* zer nahi den gauzak ahalaz bere iduritakoa nahi
baitu ekarri, eman edo egin, Philosophoek dioten bezala.

Ordea, berriz ere erranen duzu Eskuarak bertze hitzkuntzetarik erre-
zibitu tuela zenbait hitz?

Nahi dut hori hala den (oraino jakiteko delarikan, ala bertze hitzkun-
tzek Eskuaratik hartu ote tuztentz gehiago) halarikan ere gainerako
hitzak, izenen deklinazioak eta verboen konjugazioak eta mintza-
tzeko manierak, Eskuararenak dira, eta hauk hunela direnaz geroz-
tikan ezin erran diteke bertzetarik duela bere etorkia; zeren hauetan

baitago hitzkuntzaren gora behera guztia: zenbait hitz arrotzen erre-
zibitza ezta aski hitzkuntari etorkiaren emaitako, ez eta ere izaitea-
ren ganbiarazteko: gauza bera gertatzen da bertze hitzkuntzetan ere:
ezen Erromarrek Latinean errezibitu zituztelarikan hitz arrotzak, guz-
tiarekin ere etzioten ematen etorki berri bat, ez-eta-ere ganbiatu bere
izaitetik; aitzitik ba dirudi handik Latinak tuela hanbat izen diferent
gauza batentzat, zeren hartu baititu jendaki diferentetarik izen dife-
rentak, eta moldatu bere Gramatikako erregelen eredura. Ordea halere
nola, gisa hunetako hitzak apurrak baitziren bertze Latinezkoen al-
dean, etziren aski izan haren iraungitzeko, ez eta-ere etorkiaren
emaiteko.

EGILE BERAREN BESTE ZENBAIT ZATI HAUTATU

“Eztutzu beraz zer erran, eskuararen hitzak falta direla... ezen zilegi
bada erraitea gezurtatzea, zergatik ezta erranen *egiztatzea*, eta *han-
diztatzea*?

Ba dakit iardetsiko duzula eztirela usaian...

...Balin norbaitek lituelarik bi ezpata, bata baino bertzea hobea, eta
hoberen hau zokoan utzirik, mendreago hura erabiltzen balu egun
guztiaz, ongi garbitzen eta olioztatzen luelarikan; dudarik gabe, men-
dreago hau zorrotzako eta distirakorrago lizake, eta hoberen hura (zeren
zokoan dagoen) antzatu faltaz herdoilak jana, guztia kamustua kausi
litekela.

Ordea, zeren haren jabeak eztuen usaian erabili, erranen ote duzu
berenez eztela hobea? egiaz eztut uste, baldin zentzua osoki galdu ez-
baduzu, ezen hori da gauza bat, jaberren lazotasun handia eta arta
apurra ezagutzera garbiki emaiten darokuna.

Gauza bera erran diteke usaia faltaz eta antzatu gabez, zokorat aurti-
kiak bezala daduzkagun hitz hetaz-ere; halatan beraz, hobena lehen
da gurea, ezen ez eskuararena.”

* * *

...Beraz ordena eder hunen arauera arrazoa dut nik ere, Aintzindari
eta Buruzagi bat gure Eskuararentzat bilatu nahi izatea. Ordea nor
erranen dut dela nik orai hemen bilatzen dudan Aintzindaria, eta

Buruzagia, baizik P. Axulr gure Erretor famatua, eta ospe handitako hura? Egiazki Eskual-Herrian hau da bakarra, hanbat autoren liburuetan zauntzan gauzak, arantzepetik aterarik bezala, eta Theologia-ren mami hautua bildurik eskuaraz ederkienik argitara eman darokuna. Halatan beraz baderraket eskuarazko Autoretarik hau dela Aintzindaria, Buruzagia, eta lehena.

* * *

“...Hargatik bada, interpretak (itzulikatzaileak) behar dio behatu perpausaren zentzuari, ezen bertzela hitzkuntza batean ongi eta ederki erranikako gauza, balizateke bertze baten astrugaizki eta molde gaizki errana; eta hori heldu da, zeren lehen erran dudan bezala, hitzkuntzek baitituzte zeinek bere mintzatzeko manera diferentak; eta arrazoin hau dela kausa, hekien zentzua eta propietateak ez tira elkarrekin ongi komunztatzen, hitzez hitz egiten den ganbiaduran”.

* * *

“...Mintzaira lodiegia ere ezta ongi heldu Eskuararekin, hala nola *j* (eta *x*) lodiki erraitea; eta baldin eskualdun batzuek hala mintzo badira, hori heldu da, zeren, erdarak edo gaztelaniak mintzaira-molde hau hartu baitu Arabiatik, eta halaber lehen erran behar da, halako Eskuara ere erdaratik kutsatua dela, ezen badio Aita Joseph Moretek (p. 105).

Eskuaran erran behar dela lanoki eta arintki latinean eta herri batzuetan usatzen dugun bezala, zeren Eskuarak egun daino ez baitu gonbersarik izan, ez hantazinorik Arabiarrekin, ez juduekin”.

* * *

“...Eskual-herritik ilkitzen garen bezain laster, hitzkuntza arrotzen premian jartzen garela. Eta oraino bertze alde, gure herritik ilki gabe, Eskual-herrian berean barrena, geure artean dugu pena eta neke ondikoeko hau; zeren geure hitzkuntza propiala baitarabilagu hain nahasia eta trukatua non, Eskualdunok gerok pen eta neke baitugu elkarren aditzeko...

Eta hau heldu da, Eskualdunek bere hitzkuntza propiala ez estimutan idukiz, eta munduko bertze gainerako jendaki guztiek bere hitzkuntzan iskiribatzen duten bezala, eskuaraz iskiribatu faltaz”.

BASA - NAFARRA

MOSEN BERNAT DECHEPARE, edo euskeraren zabalkuntza eta ohorea

Eiharalarren bizi izan zan. Kartzela ere ezagutu zuan.

Olerkari fina eta gihartsua dugu Dechepare, gehienek diotenez.

Lehen obra inprimatua, harena da.

Testuinguru hontan, Dechepareren azken olerkiak irakurririk, eta kronologiari jaramonik egin gabe, elkar-hizketa bizi bat sortu dala iruditzen zait, eta gure olerkariak, bai Pasturalari eta bai Etcheberriri azken hitza eman nahi diela. Eta hitz hau oso optimista da. Esango balu bezala: Bai, Pasturalak oso ondo daude, herriak dibertitu beharra du. Euskeraz, noski! Horregatik, «Heuskara, ialgi adi dantzara». Baina kontu egin, otoi, ez hor gelditu. Ez bakarrik plazan, «ialgi adi kanpora», «habil mundu guzira». Alegia, euskaldunek beren sentimenduak oro euskeraz azal ditzatela, nai du Decheparek.

Eta Etcheberriri esango balio bezala: Arrazoia duzu, euskeraren egoera larri hau istimu gutxitan izan dugulako eta «eskripturan edireiten» ez dalako da. Ez da euskerarengatik, eta bai euskaldunengatik. Baina ez gaitzela etsipenean eror! Orain «Heuskaldun den gizon orok alxa beza buruia». Bide berri hontatik euskeraren salbakuntza eta ohorea datozkigulako. Kultura-bidea da salbazibide hau.

Decheparek euskal lehen liburuaren inprimatzeari bezala, kantatu behar genioke guk euskerazko kultura-liburuari. Zergatik? «Heuskara da kanpora!». Festa egin dezagun: «goazen oro dantzara».

K O N T R A P A S

Heuskara,
Ialgi adi kanpora
Garaziko herrira.
Benedika dadila
Heuskarari emandioa
Behar duien thornuia!

Heuskara,
Ialgi adi plazara.
Berze gendek ustezaten
Ezin skriba zaitela.
Orai dute phorogutzen
Enganatu zirela.

Heuskara,
Ialgi adi mundura.
Lengoajetan omen inzan
Estimatze gutitan;
Orai aldiz hik behar duk
Ohoria orotan.

Heuskara,
Habil mundu guzira.
Berzeak orok izan dira
Bere goihen gradora;
Orai hura iganen da
Berze ororen gainera.

Heuskara,
Baskoak orok preziazten,
Heuskara ez jakin arren;
Orok ikasiren dute
Orai zer den heuskara.

Heuskara,
Orai dano egon bahiz
Imprimitu bagerik,
Hi engoitik ebiliren
Mundu guzietarik.

Heuskara,
Ezein ere lengoajerik,
Ez frantsesa ez berzerik,
Orai ezta erideiten
Heuskararen parerik.

Heuskara,
Ialgi adi dantzara.

S A U T R E L A

Heuskara da kanpora, eta goazen oro dantzara.
O heuskara! laude ezak Garaziko herria,
Beren hantik uken baituk behar huian thornuia
Lehenago hi baitinzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden;
Baina haien lengoajeaz berze oro burlatzen,
Zeren ezein eskripturan erideiten ezpaitzen.
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
Ezi huien lengoajea izanen da floria,
Prinze eta jaun handiek, orok haren galdia
Skribatus halbatute ikasteko desira.

Desir hura konplitu du Garaziko naturak,
Eta haren adiskide orai Bordelen denak.
Lehen imprimizalia heuskararen hura da.
Basko oro obligatu iagoitikos hargana.

Et'oi lelori bai lelo, leloa zarai, leloa.
Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

JOAN MARI TORREALDAY

Kontzientziaren eboluzinoa

Olasok

Hain poliki eskatuak dizkidaten lerro hauetan, zearo neretik ariko naiz. Esan nahi nuke: ezarri didaten gaiari eta izenburuari ahal bezin xuxen loturik, nere bizitza luzearen barna neronek ene inguruan ikus, entzun eta sumatutako kontzientzi-aldaketa batzu agertuko ditudala hemen sinpleki, batere jakintza-usain eta beste holako haundi-nahikeririk gabe.

Oroitzapenak eta gogoetak nola burura heldu holaxe ekarriko ditut paperera, aurretik berezten eta jorratzen ibiltzeke.

Eta barkatuko nauzute, fagorez, umore on txipristin zenbait tarteka eskapatzen bazaizkit. Egun hilun eta latzetan batezere, kontzientziak odoletan dagozela, ez baita umorea baino osagarri eta bultzagarri hoberik.

Umorea aipatu dugu? Horra bada nik atzematzen dudan lehen-dabiziko aldaketa: zahar eta gazte, hortaz denak saski berean ezarritz, iduri luke denbora batean baino garestiago saltzen dala gaur munduan umorea ere. Ez baitut egun aurkitzen, ez zaharretan ez gazteetan, orai hogei-ta-hamar urte dalako umore eder sanu eta azkar hura.

Jendekiak —batzu bizi-moduz aberastu eta besteak gehixeago eskolatzearekin-edo— hilundu direla iduri luke.

Hola balitz... zibilizazino eskasa, umore gabeko zibilizazinoa. Umorea baino samina merkeago saltzen duten Herriak ez baitira gero batutzen eta gobernatzen errezak izaten.

Eta... gizona ez baita gizonago egiten irri egiten ez jaki-teagatik.

ATZO ETA GAURKO PENTSAMENDUAZ

Zertan da gaur gure Herria pentsamenduari buruz? Zertan zan atzo? Lehen lehenik hauxe esango nuke: *Pentsamenduak* izen eta itzal haundiagoa duela gaur gure Herrian, atzo baino. Eta *sendimenduak* —sendimendu utsak bederen— atzo baino estimu eskasagoa. Edo beharba hobeto esana legoke honela: bi barne-indar hoiiek batuago dagozela gaur gure Herrian elkarri.

Gaurko gazteak, ene induriko, gure denborakoak bezin sentimentalak baitira (noiz izan da gure Herrian gaur bezin bat poeta eta kantari gazte...).

Baina... gaurko neska mutilek, iduri luke, beldur diotela sendimenduaren eskupean ohartu gabe erortzeari. Eta sendimenduz abiatuak izanagatik, pentsamenduaren besoetara jo nahi izaten dute lasterka, antxintxika, hartan lagun lehial eta seguruagoa kausituko dutelakoan noski.

Ez natorkizue ni ere, ez horixe, *andere Pentsamenduaren* kontra. (Beharba ez geniola gure denboran aski kunplimendu eta erreberentzi egin? Nork jakin!). Baina kontu, otoi, pentsamendu utsari ere. Pentsamendu-loreak ez baitituzte Herriak aixe bereganatzen, sendimendu-ihintzaz ongi bustiak ez badare...

Aitor dezagun: gure denboran ez zenuten aurkituko (herri xeheiean bederen) gaur bezin bat irakur, pentsa eta ikus nahirik. Ez-eta gaur aina barne-kezka eta kontzientzi-zalantzarik. Gure Herrian batezere!

Europa osoan ez baitut uste izango denik egun, pentsamenduz eta kontzientzi-ikaraz gure bezin larri eta pil-pipilean bizi den beste

Herririk, beste gaztedirik: ez fede-zalantzaz, ez egi-gosez, ez zuzentasun-egarritz, ez aldaketa-gutiziaz, ez goratze-nahiz.

Eta halare...

Gaurko gazteak, banaz bertze, gure denborakoak baino eskolatuago eta intelektualagoak izanagatik, ez dugu gaur, nik uste, orai hogeita-hamar urte delako nola esango nuke nik... herri-dotrinarik. Preseski, bakoitzaren kultura-neurria goititu dalako ote? Beharba. Baina, dana dela, horra gauzak nola diran:

Gaur, gazte bakoitzak ekarriko dizu bere dotrinatxoa. Talde bakoitzak ere bai, gutxi gora behera, berea. Baina Herriak, *herri gisa*, ez du gaur, gure denboran izan zuen bezala, *bere* dotrina bat: dotrina berezi, ezagugarri, biltzaile bat, esan nahi nuke. *Herri-dotrina* berri hori labean dugu, segur naiz. Baina ez oraindik mahanean...

Egun ez ditugu gure Herrian aixe bilatuko —ezta lagunarte berran ere— zearo pentsamendu bereko bi gazte: ez erliginoaz, ez filosofiaz, ez ekonomiaz, ez demokraziaz, ez sozialismoaz, ez-eta gionari dagokion joka-bideaz ere. Denok nahi dugu, noski, etxeaz jabetu. Eta hortan legoke gure indarra. Baina etxeko lehioei emanen diotegun koloreaz aurretik mintzatzen asi orduko, hor heldu dire zalapartak...

Gure denboran beheretik gora heldu, askoren artean sortua genuen, geroari buruz ere, dotrina bat, gizontasun-ageri bat, filosofi bat, jokabide-gisa bat. (...).

Denbora hartako *progresismo eta unibersalismuari* esan nahi dut, arras guretik eman geniola. Guretik eta berritik.

Orai hogeita-hamar urte delako European, Hitleren denborako European, Kontzilio aurreko European, Euskal Herria *pentsamendu* bat izan baitzen. Eta ez goitik behera, bortxaz, ezarritako pentsamendu *ofizial* bat. Beheretik gora sortutako *herri-pentsamendu* bat baizik. Baina mintza gaitez garbiki, horra zer gertatu dan: geronek sortutako dotrina hori, filosofi hori, jokabide hori ez dugu jakin behar bezala gure ondoko gazteen eskutan ezartzen, hauek ezagutu, berenganatu, zearo era-berritu eta oraingotu zezaten. Noski: hor egin da ebakia. Denbora ez baitago lo. Eta gu lo egon arren, den-

bora ibilki baita. Beraz: atzokoak, berek nahi eta amets bezin bat segitzailerik gabe gelditu dira. Eta gaurko gazteak, aldiz, behar bezalako aurre-ezagutzarik gabe.

Egia esan, giroak ere ez gaitu asko lagundu, ez batzueri eta ez besteeri. Aize gabeko toki itxian ez baita garirik sortzen. Baina ez da giroa errudun bakarra. Zaharrek ez dute gazteengan nahikoa konfiantzarik ukan. Bere egina, beren eskuetan atxiki nahi izan dute. Gazteek ere ez, beharba, *lehengo kontu zaharrak* jakiteko gogo haundirik agertu. Eta norbere bekatuen agertzea ez baita bekatu, aitor dezagun garbiki: ebaketa hortaz denok gerala gaur hobendun: zaharrak, gazteak eta giroa.

Baina sekulan ez da beranduegi. Behingoz hautsiko ote ditugu gure arteko mugak? Herri bat ez baita adin eta pentsamendu berekoekin bakarrik egiten. Nik ez dut inolaz uste, Herri bateko belaunaldi guziak berdin pentsatu behar dutenik. Bai zera! Hola izatekotan, akabo aurrerapena! Nik diodana hauxe da: aldaska gabeko erroak, erro tristeak dirala. Eta bestalde: aldaska sendorik ez dala, erroetatik, behar bezela, izerdia hartzeke.

PROGRESISMUARI BURUZ ETA BESTE

Gaur *progresismua* dugu modan. Eta progresismuaren alde gaituzute gu ere zearo. Ideiak eta emaztekien erropak, ez berritzez kotan, laster gelditzen baitira parregarri...

Baina progresismua ez da *ideia* bat. Progresismua *bultzada* bat da, *eragin* bat, *aurrera-egin* nahi bat.

Eta hortaz, progresismua ez dugu, gure Euskal Herri huntan, gaurko gazte batzuen burutik ustekabeen eta golpez sortutako lore ez-ezaguna. Urrundik heldu zaizkio, gurean, progresismuari erroak...

Gure «legea» —alde askotatik begiraturaz— erabat progresista zan, denborako. Eta XVI-garren mendeko progresistarik haundiena izan zalako ibili zuten aidean gure Aita Vitoria. Euskal apaiza bai zan hura ere... orduko!

Azkoitiko Zalduntxoek, aitoren seme izanagatik, progresismuari ekin zioten gartsuki. Rousseaux berak ez zituen bada nere azken egunak Azkoitin iragan beharrak? Nun eta Azkoitin! Loiolatik urrats batzu! Orduan ere beharba...

Bainan utzi itzagun urrunegiko kontuak. Eta lotu gaitez urbila gotik. Zer ginan bada geu, orai hogeita-hamar urte dala? Ez al gera gu ere, denbora batez, progresismuaren punttaren punttan ibiliak dantzan? Izan al zan, denbora hartako European, pentsamenduz eta jokabidez, geu baino progresista eta berri-zale hausartigorik? Eta *geu* esatean, ez naiz banaka batzuez mintzo. Herri oso bat buruz ari naiz. Beldurrik gabe esan bailitake: Euskal Herria izan zala —Hitleren arteko eta Kontzilio aurreko denbora hartan— munduko progresismuaren aintzindari.

Ez gaitez beraz gehiegi harritu, gaurko gazteek ere aintzina egin nahi badute. Goazen beraz aurrera. Bainan kontu! Aurrera goazelakoan ez gaitezen atzeraka abiatu. Egiazko progresista, sortzaile eta berritzaile baita. Eta ez bakarrik biltzaile eta imitatzaile. Gerta zitekena baita: erromerira alai goazelakoan, erromeritik hilun itzul direnekin bidean gurutzatzea...

BI ERREKAK

Bainan ez da progresismua, euskalduneri urrundik heldu zai-gun erreka bakarra. Ba dugu Euskal Herrian beste erreka bat ere, hura bezin zaharra: *integrismu*-erreka. Hunen ertzean sortua nauzute bada ni ere! Eta hunen uretan igerika ibilia. Gure bi erreka hauen zulo eta ur-zurrumiloak ongisko ezagutzen ditugu beraz. Batean haurtzaroan, bestean gizondu-eta, bietan ibiliak baikera ziplizapla. Jainko maitea! Ez dakit nola ez dugun odolgolperik arrapatu. Batetik jali eta bestean sar, iraganak baititugu, gure bizitza barna, hotzikara galantak!

Bainan... honela konpreni ahal izan dugu hobekixeago, gure Euskal Herriaren Kondaira. Hura ere, mendez mende, hola ibilia baitzaigu: batetik atera eta bestean sar, batzuek bultza eta besteek geldit arazi, mendez mende bere bi erreketan txandaka igarika. (...)

ASMAKETAK ETA ALDAKETAK

Telefonua? Elekrika? Irratioa? Telebista? Tarranta? Egazkina? Bihotz-txertaketak eta beste, eta beste...?

Bainan zer dire hoiek denak, gure denboran pentsamenduak eta kontzientzi-giroak egina digun aldaketaren ondoan ezarrita?

Hargatik dudaike, mendearen hastapeneko gure Bergara hilun, dotore, zorrotz, eliztiar hura gogoratzen zaigunean —dana errespetu, dana giza-mail, dana ohidura, dana lege-zahar, dana protokolu eta erreberentzi— iduritzen zaigu, makina aldiz, beste planeta batean sortuak gerala.

Eta ez hola batere, zaldi-kotxean idiak aurretik Deskarga-ko aldapa igo izan ondoren gure haurtzaroan, gaurko gizona hilargi-rainokotan ageri zaigulako. Bai zera. Ez da hortan egiazko aldaketa. Egiazko aldaketa, gaur, kontzientzitan datza norberaren barrunpean gorderik dago, pentsamenduaren baitan arkitzen da.

«Luterok ongi erran zuen bezala...» entzuten nion lehengoan, nun eta Lapurdiko erriska batean baserritarrei mintzo zala, apaiz gazte bati prekidoan. «Luterok ongi erran zuen bezala...» Amatxo maitea! Guk hori, mutiko koxkorrak ginduzutela, mixio denboran-edo, Bergarako elizan entzun izan bagenu, ba dut uste eroriko zitzaigula bere harri eta guziz gure buruen gain eliza osoa!

«Laister lo hartzen ez baduk, eibartarrak etorriko zaizkik» esaten ziguten haurtzaroan. Pentsa! Nork esan behar neri, gero...

Asmo eta pentsaketa gai guzietz duzute gaur aldaketa bera. Mundu osoan, bai. Bainan, gure Herrian batezere! Hogeita-hamar urte hauek ekarri behar baitzuten eta ekarri baitute beren ondorioa. Gazte eta zahar bakoitzaren barnea, gaur, lurrikaran duzute. Eta noski: kontzientzi asko dagoz gaur zalantzan, zer pentsa, nora jo, zer utzi eta zer eutsi jakin gabe. Aspalditik biltzen ari zitzaizkigun hodeiak, golpez entzun arazi baitituzte beren trumoiak.

Orai arte San Antonioz hitzegiten zizunak, gaur, deskuidatzen bazera, Engels eta Marx aipatuko dizkizu debozino ber-berakin. Sozialista zahar batek, aldiz, Aita Sainduaz hitzegingo dizu, beharba, errespetu haundienarekin. Eta Markesaren alaba eskolatuare-

nak, berdin, Castro, Guevara eta Mao goratuko dizkizu erreberentziatziaz...

Eta nahaspila huntan, zaharrak mintzaira bat eta gazteak beste bat ibiltzen baitugu maiz, hor ikusiko gaituzute denok Babelen bezala, inork inor ulertzeke, denok elkarri ohiuka! Eta gertakizunak laisterka baitoaz, aldaketak ere tarrapataka doazte, laisterketan nork hartuko duen lehen plaza, atzo harritzen zuenak gaur bera harritua dala! ...

Bainan... ez izutu. Labeko egur-suaren zalapartak ditugu hoiek! Euskal Herrian ere, *Euskal Herrian batezere*, ogi freskua egiten ari baita. Ez dugu oraindik mahaiean bainan, labean dugu. Eta nik beintzat, gogotik janen dizuet gazteen ogi freskutik ere... etxeko irinaz egina bada. Gure korapilo guzia hortan baita: altxagarria kanpotik ekarria izan arren, etxean jan behar dugun ogia etxeko irinaz egina izatea.

Gaurko Euskal Herrian beintzat, etxe-ogiak, eta etxe-ogiak bakarrik, bil baigindazke senide guziok mahai beraren inguruan...

Unibersalak izan behar dugula? Noski! Baina unibersalismua ez da bizi norberagandik urrun. Norbere baitan datza egiazko unibersalismua. Galdetu Don Quijote eta Sancho-ri. Unibersalak izateko ez zuten heiek ere urrun joan beharrik izan ogi-bila. Etxeogitik janez eta emanez egin ziran haiek ere unibersalak.

Unibersalismua eta pinpirinkeria ez baitira txori berdinak!

EUSKALDUNGOAZ BI HITZ

Gure Euskal Herri huntan, hargatik, egiazko «kontzientzia-aren eboluzinoa» euskaldungoari eta euskerari buruz egin da, nik uste. Egia esateko, hauxe aitortu beharra baita: buruz behera ezarria, zegoen euskaltzaletasuna, buruz gora ematen hasiak gerala aspalditxotik. Norbaitek ohiu azkar bat egin zigun ezkerro, aldatzen hasiak baitira, gure Herrian, amaika konpleju eta kursilikeri. Eta Euskal Herrian, egun, erderaz idatzi eta mintzatzea baino, euskeraz egitea askoz *dotoreago* baita. Intelektualen artean ere. Intelek-

tualen artean *batezere*. Gure Herriko intelektual batek egun, dala filosofu, naiz poeta, naiz zinemalari, dala lege-zaharreko ala marxista, bizardun izaki ala bizar-gabeko, euskeraz egiteko gai ez bada, euskaldun intelektualen artean egiazko konpleju bat agertuko baitizu gaur bereala. «*Sigan, sigan hablando que ya les entiendo, lo que pasa es que... Nada, nada: este verano me encierro en un carserío; y para el otoño espero poder leer a Axular...*»

Ez zan holakorik maiz entzuten, orai hogei-ta-hamar urte dala, gure intelektualen artean. Ez baitute holako euskeraren nahirik eta beharrik senditu izan, beren burua horren seriozki hartua ziguten gure orai arteko... erdeldun pentsalariak!

«Kontzientziaren eboluzinoa?»: Gure haur-denboran, saloietan baino euskera gehiago entzungo zenuten sukaldeetan. Gaur berri, euskaldun berri eta ikastoletako haurrak ditugu gure egiazko aitoren semetzat!

Zearo pobre gare oraindik eta gehi-gehiena egiteko dugu. Baina, mendez mende, barnetik jaten ari ginduen konpleju lotsagarri hura hitzulikatua bazaigu, ez dugu gutxi egina ere. Gaueko ekaitzaren ondotik, argi-hastearekin, horrek ekarri baitlezazke beste guziak.

Herri gisa, euskerak daramaki kolkoan gure geroaren giltza.

Ulertzen bagaitue ez baikatue sekulan ulertuko. Ulertuko ez gaituenean ulertuko gaitue. Ulertu behar bagaitue, beraz, gauden ezin ulertuak. Hola beharba, ezin ulertuz ezin ulertuz, azkenean ulertuko baikatue.

Eta doala aurrera beraz huntan ere, gure «kontzientziaren eboluzinoa»...

IPARRALDEKO EUSKAL HERRIAZ

Eta iparraldeko Eskual Herri huntan, zertan dugu «kontzientziaren eboluzinoa?». Beste aldeko ezaugarri berak agertzen al zaizkigu gaur hemen ere? Pentsamenduz eta sendimenduz, zearo bereziak ote gabiltza bi zatiok?

Orotan duzute, itxuraz beintzat, Eskual Herri puska hau, beste Eskual Herri zati hori baino legun eta pausatuagoa. Ikusgarriak ere —bai mendialde bai itxas-bazter— hola dira hemen: arin eta legunagoak. Eta —horko ta hemengo— denok herri bateko seme-alabak izanagatik, iduri luke azaletik begiraturaz bederen, oinazea ekar lezakean asmo sendo bati azkarki lotzeko, hemengo jendea ez dala gaur horkoa bezin prest jarria.

Dala pentsamendu, dala sendimendu naiz egintza dala, ba dirudi bizitza hemen goxoki eta polikiago doala aurrera. Gehienetan, horko aldakuntza zakar eta zalaparta gogorrik gabe. Bizi-giro bake-tsu eta eztiagoan. Bere hiru iturrietarik bizi: turista, sardina eta laborantza...

Eskual Herri alde hau, noski, ez baita industrialia. Eta barnekaldeak beintzat bere betiko euskaldun itxura garbi eta zoragarria agertuko dizu gaur ere, arrotzen begientzat bederen Pierre Loti zenaren denboratik arras gauza gutxi aldatu dela...

Gaur Euskal Herriak duen zatirik *eskualdunena* mendialdeko iparralde hau baita zalantzik gabe. Euskaldunena, arrazaz garbiena, eta ohitura zaharrei atxikiena. Baita eliztiarrena ere, beharba. Edo bederen, bespera-zaleena. (Noski: hola hitzegitean, barneko Eskual Herriaz mintzo naiz bereziki. Iparraldeko itxas-egi osoa, gaur, guziz kutsutua baitago erbestetasunaz).

Baina horra egi latza, lainurik gabe agertua: horko Euskal Herri fabrikadun hori arrotzez betetzen ari zaigun bitartean, hemengo Eskual Herri bukoliku hau bere bertako hurrez ustutzen ari zaigu. Horrera ehun milaka kanpotik lan-bila heldu diren bitartean, hemendik hamar milaka lan-bila urrun doazela...! Nola izango da beraz arras berdina gaur ere horko eta hemengo «kontzientziaren eboluzinoa»?

Hortaz gain, ba dira bi gauza gogoan hartu beharrak. Lehenik: eremuz eta bizi-lagunez, Euskal Herri osoaren zati txiki bat besterik ez dala hau. Eta bigarren: iparraldetik datorren aize finak ez duela ego-aize zakarraren txistu bera ekarki. Luzarora... beldurgarriago dugu beharba iparraizea. Poliki poliki, ohartu gabe hilko bai-

tzaitu, ez bazaitu ongi arropatua atzematen. Baina... fina baita, askok gustora hartzen dute. Naiz eta gero hartaz hil...

Gainera eta batezere: hemengo jendekiek ez dituzte ezagutu guk bezala, azken bi mende hauetan Euskal Herriari buruz eskeinitako odol-ixulketak. Bi gerla haundi iraganak dituzte bai, berrogei-ta-hamar urte hauetan. Eta Frantziako zelaietan ustua dute nahikoa odol eta izerdi. Baina bi guda gorri eta latz heiek ez zuten Euskal Herriaren nortasunarekin zer ikusirik izan. Eta bigarrenak ondorio txipiagoa ekarri baldin badu, 14-garrengo gerlak aldiz, bere milaka hilekin, frantzesgotasun izpirituaz kutsutua utzi zigun Eskual Herri alde hau luzarokotz eta sakonki. Lapurdiko herriska txikienetarikoa hilerri batera urbiltzen bazaizte, harrituko zerate hango soldadu hilen izen-lerro luzeak irakurrita. Eta noski: horrek utzia du berea: alde huntako baserri jatorrenetan ez baitituzte saltzeko izan orai arte beintzat, bertako semeek 14-ean irabazitako medaila eta xingolak...

BAINA KASU!

Baina kasu! Kontu otoi! Hemen atzartzen hasiak baitira bazterrak. Ez dedila inor okerrean sar. Bidasoaren bi aldeok askok uste eta nahi baino urbilago baitagoz gaur elkarrengandik... denbora batez baino! Ez beharba, oraindik zearo herri zeheiean. Baina eskolatuen artean bai segur. (...) Hemen ere «kontzientziaren eboluzioa» ez baita egonean lo egon.

Ba dakit: eboluzioa ez dala hemen, hor bezin zabala. Baina askoz estuagoa izanagatik gaur oraindik, horkoa bezin sakona eta egiazkoa deritzait.

Noski: alde huntako suak ez du sekulan izango berezko indarrik. Hartako ahalik ez baitu ez eremuz, ez bizitzailez, ez oldarraz. Horko mende dago hemengo geroa. Baina aizeak hor gure alde joko balu, beharba ez litzaizkiguke hemengo anai-arrebak urrun joango aterpe bila. Agian geroak emanen dit arrazoin. Hogeitahamar urte hauetan bide luzea eginga baita...!

LEHEN ETA ORAINGO IPARRALDEA

Orain hogeita-hamar urte... hauek denborak! Euskal Herria hemen zan orduan ere; gaur baino euskaldunagoa, beharba. (Beharba ez, seguru). Donibane Lohitzun-go karrketan aixeago entzungo baitzenuten orduan euskera, orai baino. Elizan ere...

Eta hargatik... asmoz, pentsamenduz, xedetasunez, jokabidez, bi Euskal Herriok —hango eta hemengo— zein urrun ziran elkarrengandik orduan. Gaur ez. Hortan da diferentzi guzia.

Denbora hartan hemen erregetzat zuten Ibarnegarai batek, esate baterako, euskeraz ederki asko egiten zuen. Eta, bere modura, betitik euskaltzale izana zan. Herrietako erretor zahar haiek ere, zer esanik ez. Lapurdi, Xibero eta Baxenaparrako herrisketan, euskaldungoa biziago zenuten orduan orai baino. Eta halare, denbora hartan, gu hemen... arrotzak ginan. Zigor-zelaietararat eraman ginduzenak ez baitziran kanpotiarrak izan...

Eta nun ziran bada orduan hemengo euskaltzale progresistak? esango didazute. Baina... orduko hemengo ezkertiar eta progresistak ez baitziran, urrundik ere, euskaltzaleak! Hortan dago bada, hemen ere «kontzientziaren eboluzinoa». Denbora bateko euskaltzaletasuna zearo *konserbadorea* baitzan hemen ere. Lehenari atxikia. Jauntxokeriari lotua. Lehen aipatu dugun integrismu-erreka ertzean jarria. Eta hargatik harritu eta gaitzeratu genituen hemengo eskualdunak gure jokabideaz. Eta hargatik gaitzesi ginduzten. Iparraldeko eskualdun eta eskualtzaleentzat ezin eramana, ezin ulertua, ezin onhartua baitzen guk denbora hartan aukeratutako bidea...

Zenbat Pierre Lafitte ezagutu ditugu hemen denbora hartan? Zenbat Jauregiberri? Zenbat Dutournier? Zenbat Ospital...? Eta denen gainetik... zenbat Matieu? Doakiela gaur, beren anai-arreba guzien eskerrak.

Bai, gazteak. Sinetsi zaidazute: ez zerate zuek Euskal Herriak ezagutu dituen lehendabiziko haur urratzaile eta aintzina-zaleak.

Izan dituzute aurrekoak, guk ere izan genituen bezala. Eta ondorengoak izango dituzute, guk izan ditugun gisara. Gure Herriaren «kontzientziaren eboluzinoa» ez baitzan gure besotan lo gelditu. Ez eta zeuenetan geldituko ere. Beharrik! Errekak ibilian hartzen baitu indarra.

Astindu eta jorra gaitzazute, beraz. Zuen ondokoek zuek astinduko eta guk gure aurrekoek jorra genituen bezala. Bizi-legeak hola agintzen baitu.

Bainan nahi baldin baduzue, geroari buruz bildu gaiten. Denen indarrez jabetu gaitezen etxeaz.

Eta gero ere —Pestaburutan bederen— etxe-ogitik jan dezagun denok mahain berean jarrita...

O l a s o

Eskualdungeoaren aldaketak Ipar Euskal Herrian (1900 - 1970)

Piarres Larzabalek

Lau oinarri hartuz eta horien gora-beherak azalduz, ikertuko ditugu azken mende erdi huntan, eskualdungeoak izan dituen aldaketak. Lau oinarri horiek dira: politika, erlisionea, kultura, ekonomia.

AMALAUKEKO GERLA AINTZIN

«*Euskaldun fedeun*», bi hitz horietan da orduko eskualdungeoaren mamia. Urte hetan, gerla zen Frantzian, gobernu eta Elizaren artean. 1905 garren urtean, gobernu jabetu zen Elizaren ontasunez. Nahasketak gertatu ziren gure herri gehienetan. Eskualdun politika eta Elizgizonek bat egin zuten, gobernuaren kontra. Gobernu jazarri ere zen, ordu batez, gure mintzairari, eskuarazko katixima eta predikuak debekatuz. Orduko apezpiku-apezek eta Eskual Herriko buruzagi gehienek, gogor egin zioten gobernuari, berdenboran zerbitzaten zituztela: Fedea, Elizaren eskubideak eta eskuara.

Eskualdungeoaren hausteko, gobernuak gure herritan ezarri zituen enplegatu erdaldun asko eta gehienak... gorriak (Eskoletako erriente, mugetako guarda eta bertze).

Bertzalde, arrotzeria asi zen sartzen eskual lurretan... Udatiar-
rrak, itsas hegian... Aragonesak Maulen.

Gure gaztetarik ainitz Ameriketarat joaiten zen. Aberasturik,
Ameriketarik itzultzen zirenak, agertzen ziren askotan, «radical»
deitu diruzale gorrasten alderdiko.

Eskuara zen ibiltzen familietan, Elizan. Norbaitentzat
«Frantsesa» zela erriaten zen, adieraziz bezala, ez zela gure nazione
berekoa... Eskual goi-kulturako burulantzale batzu ari ziren beren
sailari, bereziki mintzaira ikertzeari.

Eskual-ekonomistarik ez zen. Hitz laburrez, eskualdungoaren
beiratzailleak ziren «xuriak» eta eskualdungoaren etsaiak «go-
rriak»... Xuriak ziren elizatiar eta «eskuintiar»... Gorriak, aldiz,
Elizatik bazter eta «eskertiak».

BI GERLEN ARTEAN

Bi gerlen arte deitzen dugu, 1918-1939 arteko garaia. Garai
hortan, eskualdungoak ezagutu du erreberritze bat. Erreberritze
hori, bi hitzetan da: *Eskual Herriaren alde*.

Urte hetan, ez da gehiago Eliz eta gobernu-arteko borrokarik.
Borroka da diruzale ta langileriaren artean. Girixtinoak ba dira
bi alderditan. Gehiago ahatik, diruzaleen alderdian. Orduan sor-
tzen da *Aintzina* agerkaria.

Aintzinatarrek ateratzen dute eskual-politika berri bat. Eska-
tzen dute Eskual Herriarentzat legedi berezi bat. Eskual Herriari
nahi dute Frantziari josia, bainan bere nortasuna errespetatuko du-
ten lege berezi batzuen jabe. Aintzina-tiarretan ba da gizon orotarik:
Eskuintiar, erdiko ala ezkertiar.

Goi-kulturazalek, 1928an sortu zuten *Gure Herria* agerkaria.
Hau, beti agertzen da. Hunen inguruan, Eskualdun buru-lanzalek,
lan ederra egin dute.

Orduan ere, bereziki haur eta ikasle gaztetan, *Eskualtzaleen-
Biltzarra* batasunak, eskual azia erein izan du.

Nola ez aipa ere, Eskualdun teatrolari, dantzari, kantari eta holakoek atzarri duten eskual-giroa.

Garai huntan oraino, eskual ekonomistarik ez da azaldu.

Bertzalde, frantses politika-alderditan sartu buruzagiak, bozkatzeko gehienetan, hitzemaiten zuten zerbaitek egingen zutelako Eskual Herriaren alde.

Horien guzien gatik, itxuraz segurik, eskualdungoaren atxikimendua beheratu zen garai hortan. Zergatik ote?

Zeren-eta, Eskual Herria, Eskualdunetz gutiagotu baitzen, eta arrotzek gehiagotu. Anitz eskualdun gazte urrunduko ziren Eskual-Herrietik, bizitzeko lanaren ondotik. Anitz arrotz aldiz Eskual Herriatik sartu, diru egiteko edo diru egina gozatzeko.

Zeren-eta, bizitzeko beharrek eta, zirritu guzietarik sartu erdaldunkeriak, pozoinatu eta baztertu baitzuten eskualdungoa.

Zeren-eta, Eliz-gizon asko lotsatu baitziren, ikusiz herri-gizonen zoin guti lagunduak ziren eskualdungoaren alderako obrantzetan.

Zeren-eta, bai erdaldunek bai eta ere erdera zakiten zombait eskualdunek, burlatzen baitzituzten eta gaizotzat ekartzen, erdara guti edo batere ez zakiten eskualdunak. (Pentsa «Ganix da Makai» eta holatsuko konplimenduari.)

Zeren-eta, betidanik jende apalak gorakoeri baitira jarraikitzen. Gorakoen jakintza, heien diru eta karguak ziren usu, eskualdungoari guti edo deus zorrik gabekoak. Zergatik beraz, bizkarrean har, bizi mailan goratzeko deus balio ez zuen eskualdungoaren karga? Karga hori ez ote zen, «handiek» beren ganik baztertu zama bat, «ttipien» sorbalda gainean ezartzen zutena, haukien obeki menperatzeko?

OGOI-TA-AMASEIEKO GERLA

Hego-aldekoen ogoi-ta-amaseieko gerlak zer ekarri ote dio iparaldeko eskualdungoari? Astapenean, kalte... Luzarat, asko.

Iparaldeko eskualdunentzat, gerla hori, ordu gaxtoan asi zen.

Bozetako borroka izigarri baten ondotik, ezkertiarrek, Léon Blum buru, Frantzia-gobernuko giderren jabe sartu ziren.

Ipar-Eskualdunek, nombre handian, eskuintarrerri, buru zute-la Ibarregaray, zioten boza emana ...Fededunak beldur ziren ez ote zituzten ezkertiarrek, eskola girixtinoak, errotik kenduko. Jen-dea kezkan zagon, Parisen eta hiri handitan gertatzen ziren nahas-ketak ikusiz.

Bertzalde, ez da ahanzi behar, mugaz eta jenden arteko hartu-emanetz, Ipar Eskual Herria, askoz josiago zela Naparroari, bertze iru probintzietan baino.

Azkenekotz, ogoi-ta-amaseiko gerlan Hendaiako muga trebesa-tu zuten lehen iheslariak, Lapurtarrerri inprexio arras hitsa egin zie-ten. Gehienak ziren «gorritarik». Gutik zuten eskuara mintzaten. Ukailuak altxatuz zituzten jendeak agurtzen. Sotana bat ikusi ordu-ko, hari jestuz, tiroka ziren lotzen. Mihiz eta moldez, arruntak eta ausartak ziren askotan agertzen. Heien jokabidea kaltegarria izan zen euskotar-alderdiarentzat.

Ondotik etorri ziren euskotar zintzoek ainitz pekatu zuten lehen iheslari horien gatik. Ahatik emeki, ipar-eskualdunek bobeki ezagutu zituzten euskotarrak eta haukien gorabeherak.

Euskotar ainitz, batzu denbora gutirako, bertzeak luzarako, kokatu ziren ipar-alderdian eta bereziki Lapurdin. Horieri esker, asko sailetan, eskualdunagoak odol berri bat bildu zuen.

1939-45 EKO GERLA ONDOAN

Amalaueko gerlan, burrustaka zen ixuri eskual odola. Baina Frantziak gerla irabazi zuen. Gure gerlari hoiak, zernai medeila eta pentxione bildu zuten eta frantsesgoari itsutuki josi ziren. Heientzat Frantzia zen munduko nazione azkarrena argiena, lehena eta... eterna.

Arras bertzerik izan zen 1939-45 eko gerlaren ondotik. Zafraldi on bat harturik, halere Frantzia atera zen irabazdunen lerroan. Baina Frantzia bat kraskatua, duda-mudetetan sartua.

Frantziaren peko ziren koloniak, mugitzen asi ziren Berengintasuna eskatuz. Ipar Euskual Herrian ere sortu zen nor-bera bere buruaren jabe izaiteko giro berezi bat.

Etcheverry-Antchart jauna, deputatu sartu zen Pariseko Deputatuen Ganberan eta liburuxka bat argitaratu zuen, eskatuz Eskual Herria destinkatua izan zadien, Pariseri loturik zaukaten lokaerietarik. Etcheverry-Aintchart jaunaren lege-saila ez zen onhartua izan, Deputatuen Ganberan.

Zonbait «Aintzina»-tar ere presentatu ziren, han eta hemen, bozka-partidetan. Hetarik bat, Marc Legasse jauna, eskualdun anarkixta bezala. Boza pilixta bat ukan zuten. Marc Legasse jaunak, zonbait egunen presondegia bildu zuen.

Garai hortan, radioarekin telebixt erdarazkoa sartu zen gure ainitz etxetan. Arrotzak gehiagotu gure lurretan. Eskualdunak oraino gutiagotu. Haurren eskolarat igortzeko eginbidea legez goratu zuten, amalau urtetarik amaiseietarat. Eskualdunagoa agortuz zoan gehienen gogo-bihotzetan. Halere, eskualtzale multxo ttipi bat, sekulan baino suarkiago ari zen lanean eskualdunagoaren alde, bai liturgian, bai ekonomian, bai-eta edozoin idatzi eta folklore sailetan.

1960-eko urtearen inguruan, izigarriko saindamenduak gertatu dira Frantzian. Frantziak galdu ditu bere kolonietarik gehienak. Europa «bat» egitearen giroa zabaldu da. Nola egin Europa elgartu hori, eztabaidak sortu dira. Batzuek nahi zuten gaurko nazioen Europa, bestek ekonomiari behatuz zatituzkoa... Batzuek muga gabekoa, bestek mugaz arindua bakarrik.

Orduan muntatu da «Enbata» taldea. Enbata-tiarrek eskatzen dute Europa«bat», aberrien federalismoa daukana oinarritzat. Eskual probintzi elgartuak hor sartzen direlarik.

Enbata-tiarrek giro berri bat sortu dute Ipar-Euskual-Herrian... Gogor jokatzuz, ba bozkatzetan, ba bertze asko legunkerien kontra, kolpe bortitzak dituzte eman, bai eta ere... hartu.

ONDO SOLAS

Erran gabe doa, holako lan labur batean, ez ditazkela oro aipa. Orraztatze larri hunen azpian, asko batasun, agerkeri, eta gizonen eginkizun eta laguntzak ixilpean utzi ditugu.

Agertzerat eman duguna da, nola, azken mende huntan, Ipar Eskual Herriaren jokaera, izan zen josia Frantziako harat-hunateri.

Jokaera hortan, bi bide ikus ditazke. Batek du eskualdun goa, frantseserian urtzen eta suntsitzen. Bertzeak aldiz, eskualdun goa frantseseriatik deslotzen eta urruntzen.

Eskual Herriaren deskolonizatzea egiten da iru mailetan. Lehen mailan, «*Eskualdun fededun*», eskualdun goa da Elizaren eta frantses politikazaleen morroi. Bigarren mailan, «*Herriaren alde*», eskualdun goa da destinkatzen, Eliza eta frantses politikaren arrimetarik. Irugarren mailan, «*Euskualdun abertzale*», eskualdun goa da beregain jartzen, morroitzako lokarriak autsirik.

Eskual Herriaren deskolonizatze jokabidea, ez da izan beraz, gure arteko «handi» eta «ttipien» zoin-nausi borroka, baina partida izan da nork manatu Eskual Herriari, Parisek ala Eskualdunek. Frantsesetan ala Eskualdunetan, eskualdun goaren aldekoak ala kontrakoak, berdin izan dira nola ezkertiarretan ala eskuintiarretan.

Eskualdun goaren alderako guduka ez da beraz sozial guduka bat, baina politika guduka bat.

Eskualdunak ez direno izanen, hein batean bederen, beren politika-giderren jabe, eskualdun goa ahulduko da.

Bertaldea ez da esperantza izaiterik Pariseko gobernuak deus ere eginen duela eskualdun goa salbatzeko, ez badira eskualdunak berak, horri buruz, leiatzen, samintzen, oldartzen.

Horra zer erakapen dauzkuten eman, mende hunen astape-neko urtetan, eskualdun goari buruz, erabili borrokak.

Piarres Larzabal.

Eskual Herria Frantziarekin bartuemanetan

Janbattitt Dirassarek

«Boza bati eman edo bertzeari eman, ez du ez denen buru munta handirik; oro har, denak berdina dira, saltsero batzu, beren sakelaren betetzeaz grinatzen dira gure ongiuz baino gehiago.» Horra ateraldi bat frango usu entzun eta entzuten dena Ipar Eskual Herrian gandi.

Eta ahopaldi horren puntan, arrazoinamenduaren hobeki finkatzeko bezala, aditzen da ere bertzerik: politika negozio ilun bat dela, dena jukutria eta okerkeria, sail ustela, kaltekorra, makur-biden emendatzeko joko hauta...

Iduri luke beraz ainetzek ez dutela itzalik baizik ikusten politika-sailari eta bizkitartean holako solasak hoin aise hedatzen dituztenak ere ez dira azkenak sail horren kondu gisa bat edo bertze bermatzeko.

Dena dela, Ipar-Eskualduna hein bat segitzen baita politika-biziaren goiti-beheitieri, ikus dezagun bada nola apailatzen den sail hortan.

Mail gorenean politika horren harat-hunata Parisen egiten denaz geroz, Pariseri behatuz baizik ez ditakela susta funtsezko indarrik, horra behin hasteko eta bat Eskualdunek ere ardura beren gain hartu duten joka-bidearen gakoa. Bizkitartean, eta bereziki azken urte hotan, ez dira denak hortarik ari. Asko gisetarat, gogo berri bat sortu da eta itxura berri bat emaiten dio Frantziako politikan sartzeko Eskualdunek hartua zuten moldeari berari.

Bertzalde, Ipar-Eskualdunak, bertze Frantsesen gisa funtsean, politikari plantatzen ziren gehien-gehienik bozen bidez edo bozen kariatarat.

Pondu huntan ere, azken urte hok ekarri dute aldakuntza asko, edo bederen —ez giten sobera ausart izan—, aldakuntza askoren abiadura bat.

Bainan urrutxago mintzatuko gira aldakuntza horietaz eta on da hain segur behako bat eman dezagun undar ehun urte hotan Ipar Eskualdunek politika sailean egin urratsen segida guziari, larri larria bixtan da, xehetasunetan hanbat sartu gabe.

* * *

Eskualdun frangok arras maite omen zuten Napoleon III-a, 1870-ean bere karguaren uzterat ekarria izan zena. Maite zuten naski Miarritzerat usu heldu zelakotz bainan ez bide ziren hanbat axolatzten haren politikaz.

Ondoko urtetan, sortu zen Hirugarren Errepublika, eta bozak gero eta usuago izan baitziren, hortan berean Eskualdunak gero eta gehiago ohartu ziren politika-jokoari.

Errepublika horrek iraun zuen 70 bat urte ez baiian.

Epe hortan guzian, Ipar Eskualdunek hautatu gizonak jarraiki dira Pariseko aintzindariak gobernuaren alde edo kontra sustatzen zuten sailari. Kasik beti, beren alderdiaren aintzinekoek finkatu saila *jasan* dute sail horren sustatzaile edo kudeatzaile hanbat agertu gabe. Segur, Charles Floquet, radikal buruzagia, Garaztarra zen sortzez, bainan hortaz kanpo nehor ez da Ipar Eskual Herriatik jali alderdien aintzineko handien lerrorat igan denik.

Jadanik bietan, alderdi hitz hori jin da gure lumarat puntarat. Ez pentsa bizkitartean Hirugarren Errepublika denboran eskualdun boz-emaiak axola handia zutela alderdien funtsaz. Gizonari zuten behatzen alderdiari baino gehiago.

Oro har, alderdiek erro guti zuten Ipar Eskual Herrian. Aldiz, gizonak, beren alkiak segurtatuz geroz, erroak azkar. Konparazione,

Ybarnegaray jauna 30 bat urtez egon da Xubero eta Baxenabarre aldeko deputatu...

Ez da haatik ahantzi behar gizonari behatuz «ideia on» batzuen alde izaita galdatzen ziotela eskualdun boz-emailek.

Ideia onak, erran nahi baita «xuri» ideiak. Eskualdunentzat, politika-gizonak ziren xuri edo gorri, eskuindar edo ezkertiar. Behin, gauzak molde hortan ikusten zituztenak ez zabilizan menturaz hain makur.

Bainan urteak jin, urteak joan gero eta makurrago, arrunt «xuri» edo arras «gorri» deitzen ahal zirenen aldean agertzen baitziren xuhail eta gorraxta frango, eta mota guzietarik.

«Xuri» deituak luzaz segurik erregetiar ziren edo bertzenaz Napoleon-tiar, «gorriak» aldiz Errepublikano... Nola erregetiarrak eliza-tiar baitziren eta Errepublikanoak Elizaren etsai —hein iduriko Elizak trabatzen zuelakotz jendearen aintzinamendua— ainitzetan segurik Elizaren alderateko atxikimenduan edo aiherkundean izan da bozen funts gehiena, gaineratiko ponduak aise utziz bazterrerat. Eta nola Eskualdun gehienak fededun suhar baitziren, ardura eskuindarrak dituzte hautatu deputatu bezala, eskuindarrak edo ezkertiar apelak... gorriagoen aldean xuri emaiten zutenak.

Erraiten ahal da ere apezek egiten zutela parte handia segurik bozen harat-hunata. Boz-emaile ainitzak apezek erranetik jokatzen ziren. Denen buru, hori ez da batere harigarri.

Alde batetik, apezek kanpo, Eskualdun guti ziren eskolatuak eta politika gauzez hein bat argituak, eta jende frango beren baitarik johan ziren beraz apezari argi eta kontseilu eskatzerat; bertzetik, politikaren itzalpean, eliza-tiar eta Elizaren etsaien arteko auzia baitzen gehienik ala, horren gatik apezak nahitez ekarriak ziren beren ikus-moldearen deplauki erakusterat.

Gero, denborarekin, nekez bada nekez, denek azkenean konprenitu dute girixtino on bat Errepublikano suhar berdin izaiten ahal dela.

Bainan handik aintzina ere Elizari buruz batzuk eta bertzek ukaiten ahal zituzten sentimendueri ainitz behatu da, hortan baitza-

gon auzi premiatsuanetarik batto. Dugun ere erran Errregatiai gogoia frango laster ahuldu zela Ipar Eskual Herrian gairi, eskuindar aintzidari aipatuena Errepublikano jarri geror. Gogo hori ahuldu zen hazgailurik ez duen landare bat eihartzen den bezala.

Hirugarren Errepublika denbora hortako bozen gairitik, ba litake oraino nun zer erran.

Jende aberatsak eta aizinatuak baitziren boz galdez ibilki, bereziki «xurien» aldekoetan, eskual-jendea bozen bidez ardu arizan dela indardunari oraino indar gehiagoren emaiten. Hori ere gauza ohargarria, bertze frangoren artetik. Gisa hortan jenkeak boza aisen-aisen emaiten zuen «jaun handi» egiten zuen norbeiti, bereziki mintzaldi eder zonbeiten ateratzeko trebe bazen. Frangotan, jendea xeheago eta molde hortan jokatzera ekarriago...

Bertze pondu batzuk ere hartze lukete aipaldi bat: konparazione, asko tokitan, saltsa pullita egiten zela bozak «erosiz» dirutan truk, zerbeit zerbitzuren alderat... edo berdin bi pinta arnorekin...

Bertzalde, bozen auzia samintzen eta sumintzen zelarik, kalapita gaitzak izaiten baitziren, kasaila horietan zernahi ateratzen zela kontrakoaren itsuski beltzatzeko. Ez bakarrik elez, bainan berdin izkirioz. Lehengo astekarietan, gauza harrigarriak irakurtzen ahal dira bozen denboran agert-araziak, egiazko jendetasunaren axola izpirik gabe.

Oraiko egunean ere, bozen karietarat izaiten dira jendetasuna kolpatzen duten solas eta egitate batzu, erroik ttipikeriak, bainan hoinbertzetarainokorik ez ditake asma ere. Ez dugu oraino ikasia izari sano batean egoiten bainan urrun gira halere denboran ezagutu diren molde higuigarri batzuetarik...

Horiek hola, hoinbertze zalapartekin bazterrak arrunt harrotzen zirela, ez dugu bietan erraitearen beharrik. Bizkitartean, jende frango bozik eman gabe gelditzen ziren. Ehunarentzat berdin 30 edo gehiago. Araberan, jendea bozaren emaiterat Lapurdin baino jarraikiago zen Xuberon eta Baxenabarren. Xifreak hor dira lekuko.

1939-tik 1945-erata, gerlak ilundura pizu batez estali zuen Frantziako politika-bizia.

Kanoiak ixildu zirenean, ahal bezala sortu zen Laugarren Errepublikak. Egia erran, dotzena bat urteren buruko, Errepublikak berria ja higatua zen. Parte handiena alderdien joko okerraren gatik... Gobernuak nihundik ez zezaken ukan hein bat iraupenekin jokatze-ko moldea zerbeit eta bizkitartean molde horren behar gorria bazuen. Ahuleziak joa, Laugarren Errepublikak hori erori zen.

Eta orduan zen sortu Bortzgarren Errepublikak, leke-nausi bat hobeaz zimendu gisa. De Gaulle jeneralaren manupean. Gerozik, Errepublikak horrek segitzen du bere bidea...

Ez da dudarik politika-sailari buruz Ipar Eskual Herrian ere azken 25 urte hotan asko eta asko gauza kanbiatu direla, edo bederen kanbiatzen ari.

Eskualdunen politika-gogoaz bera kanbiatuz doa.

Iduri segurik du espantu eta mintzaldi ederrek ez dituztela Eskualdunak lehen bezenbat xoratzen... nun ez diren biziki goratik heldu...

Orai ere, Eskualdunak aise jarraitzen dira fama handiko aintzindari bati. Ikus azken hameka urte hotan Eskualdunek zoin nasaiki bozkatu duten De Gaulle jeneralaren alde.

Iragan apirilean, Frantzian gaintzi eza nausitu delarik De Gaulle jaunak egin galdeari buruz, Eskual-Herri barnean ehun bozetarik 70 baiaren alde izan dira. Beraz, fama handiko aintzindariari aise jarraitzen direla Ipar Eskualdunak, hori egiaz dago bainan gure iduriko Eskualdunek ez dute halere lehen bezen aise ezartzen nor edo nor «fama handiko» gizon mirengarrien lerroan.

Eskualdunak gero eta nekezago jartzen dira entraaleko politikari baten alde. Eta ez ditu ele ederrak asetzen, bereziki gazteak.

Jendea gero eta gehiago ohartzen ari da politikaren bidez behar dituela gain-gaintetik erakutsi tokian tokiko behar-orduez dituen grinak. Deputatu-gaiak bozketa dabiltzalarik, ez da orai aski bazterrak harro ditzaten hitzaldi suhar batzuekin, hitzaldi horiek ez badute aski mami jendeak ikusten dituen behar-ordueri buruz. Ez da ere aski holakoari edo holakoari ohorezko xingola bat edo bertze zerbeit fagore nolazpeit agintzea.

Bozketa dabilanak Herriaren behar-orduez behar du izan aski argitua eta behar-ordu horieri buruz zer xedetan ibilki den behar du deplauki erran.

Jendek hori diote gero eta gehiago galdatzen.

Holako bideaz, halako obraz, nun nahi xehetasunak eskatzen diozkate.

Nola Frantziako bertze eskualdetan ere gauza bera ikusten baita alderdiek ere beren saila finkatzen dute batzuk eta bertzek eskuin eta ezker argitaratu behar-orduez hein bat axola erakutsiz. Ondorioz, bozketa dabiltzanen arteko garraitdaldietan, ardura entzuten dira agintza ederrak tokian tokiko behar-ordueri buruz. Nausitzen denak ez dezazke, ardurenean segurik, hitzeman guziak ardiets, bainan bakan egoiten da ere hitzemanetarik deus segurtatu gabe. Erran ditake beraz, eta duela zonbeit denbora politikari aipatu batek garbiki erraiten zaunkun gauza hori bera, bozak izaiten diren aldi gehienetan, heien ondotik ba dela Herriaren onetan zerbeit aintzinamenduren mentura poxi bat, obrak ez izanik ere elen araberakoak...

Gisa guziz, deputatu-gai eta deputatuek Herriaren behar-orduez ba dute gisa bat edo bertze axola handia. Axola hori berne dira apailatu Errecart, Labéguerie eta Inchauspé bezalako jaun batzu...

Eta ondotik jinen direnek ez ere ez dute bertzerik egiten ahalko. Ez dute arrakasta handirik ukanen Frantziak Ruso, Aleman edo Zanzibar-tarrekin dituen hartu-emanak baizik ez badituzte aipatzen, edo berdin Frantses armadak behar dituen edo behar ez dituen muntadurak, axolatu gabe Baionako portuaz, Nafarra alderateko errebidez edo Hazparneko zapeta lantegiek geroari buruz ihardokitzeke moldeaz.

Bainan hara, sail hortan ere, aipu dugun aldakuntza horren gainerat, bertze aldakuntza bat agertzen ari da, bereziki undar hiruzpalau urte hotan.

Gazte askoren artean huna horren gainetik zertsu arrazoinamendu hedatzen ari den: «Tokian tokiko behar-orduez lehen baino grina gehiago ukaitea, ez zauku gaizki bainan ez zauku ere aski.

Alabainan, denen buru, zer ari gira joko hortan?

Guhauren behar-ordueri buruz, Parisetik laguntza eskatzen. Parisetik hau ardietsi behar, hura ardietsi behar. Hunek harrek baino gehiago ardiesten ahal badu, beraz hobe hau izan dadin kargutan. Hori da Parisetik zer ukanen dugun ahoa xabal-xabala egoitea. Hori da eskale izaitea eta denen buru bertzen esku-makil gelditzea. Parisek kentzen daizku nahi dituenak oro eta guk handik laguntza zerbeit ardietsi behar aski otoizka arizanaren bortxaz. Ez da hori jokoa, guk gureak gure nahi ditugu...

Arazoinamendu hori bururaino segituz, biziki urrun joan ditake. Dena dela, hortan ikusten da batzueri ez zaiotela aski politika tokian tokiko behar-orduak hobeki ikusiz akulatzea, errotik molde berriak nahi dituzte sustatu, bai eta eraikidura berriak.

Den bezela erraiteko, arras guti dira oraino arazoinamendu gisa horri funtsez ohartuak. Geroak erranen du ikus-molde berri horrek bilduko duenez arrakasta...

* * *

Bertze aldakuntza bat ere nahi dugu aipatu. Lehen, bozen denboraz kanpo, politika guti aipu zen Ipar Eskualdunen artean.

Orai, aldiz, frango badira politika-biziarí hurbilagotik jarraiki nahi direnak.

Horren konprenitzea ere errez da: egunkari eta astekariak gero eta gehiago zabaltzen dira, radio eta telebixta denetan sartuak dira, jendearen izpiritua lehen baino gehiago ernatzen da politika-gaierí buruz Ondorioz, alderdiek lehen baino azkarrago egiten ahal dituzte beren erroak. Bainan erroak azkar egiteko, berak behar litazke sanoago. Sobera aise lerratzen dira joka-bide okerretarat. Frantziako alderdiak ez dira oraino segurik aski barnatik berritu. Xede onak ba dituzte nasaiki eta obra txarrak ausarki. Bizkitartean, emeki bada emeki, bertze funts bat biltzen ahal dute, beren indarra manatari bati esker gain behera egiteko partez, beren aldeko xehenetari

rik abiatu oldar berria ez badute aintzina itotzen, bainan ba errotik sustatzen.

Gisa guziz, jendea ohartzen ari da —eta bereziki gazteak, dugun berriz ere erran— politikaren estalpean balinbada ere negozio, jukutria eta ustelkeria frango, politikak berenaz bide bat zabaltzen ere duela gizarte baten ongia ahal bezenbat bilatzeko eta obratzeko.

Behar da bertzalde ikusi Ipar Eskual Herrian ere Frantziako bertze eskualdetan bezala, jendea ez dagola lehen bezenbat itzulia «jaun handi» xoilari buruz, gider gusiak heieri uzteko xedetan. Segur, diru asko duenak oraino ere bertze batek baino aiseago bide egin dezake politikarien artean, bainan boz-emaileak ez dira denbora batez bezala artzen aberatsari politikari esker gehiago aberasteko moldea ezin aski emanaz. «Gutarteko norbeit izan dadin kargutan, batere ez zauku gaizki», horra frangotan entzuten den solasa. Bertze orduz usuago adituko zen: «Hori gutartekoa duk, ez ahal duk beraz gu baino gehiago, ez diuk batere kargutan ezarri behar».

Bixtan da ere oraiko egunean politikaren gakoa ez dela gehiago Elizaren alderat batzuk eta bertzek duten atxikimenduan edo aiherkundeetan, nahiz noiz edo noiz zenbeitzuk arra-piztu nahi luke ten holako auzia. Ondorioz, apezak ez dira lehen bezenbat sartzen politikan, erran nahi dugu alderdien politikan. Aldiz, apezek sekulan baino hobeki erakusterat emaiten dute —eta arrazoinekin, gure iduriko— nahi dutela jendea untsa argitua izan dadin politika-sailean egin behar dituen hautueri buruz.

Ainitz tokitan, girixtino batasunek, molde berezi batez gazte batasunek, indar guziz baliosa egin dute bai eta aintzina segitzen, jendeak ohart diten girixtino gisa politikari buruz ere dituzten eginbideri. Gisa hortan argituak diren boz-emaileak ez dira hanbat axolatzen politikarien arteko muga zaharrez. Ondorioz, ez da harritzeko alderdiak ekarriak badira molde berri batzuen hartzerat eta beren bermatzeko molde guziaren kanbiatzerat, goraxago ja erraiten ginen bezala.

Eta ez da harritzeko «eskuindar» eta «ezkertiar» hitzek be-

rek galdu badute, eta ez entraaleko heinean, hoin luzaz ukan duten arrakasta.

Bertzalde zernahi ideia berri sartzen ari dira politika alorretan. Horien hedatzaile, bertzeak bertze, «clubs» deitzen dituzten batasun asko, PSU alderdia eta hunen ahaidekian sartzen ahal diren olde batzu, edo berdin, nahiz bertze gisako arrangura batzuekin «Mouvement Federaliste Européen» federalixta oldea. Oro har, ideia horiek ez dute arrakasta handirik bainan nahitez inarros-aldi bat emaiten diote politika-biziari. Eskualde hortarik ere, jadanik hein bat azkartu alderdiak bortxatuak dira ainitz behar-ordu moteri oraino hobeki behatzerat. Eta jendeak ikusten du ideia berri horieri buruz alderdi horiek ez dabiltzala elgarretarik hain urrun, pondu askotan segurik. Horren gatik ere, jende asko aiseago apailatzen dira ez hain azpaldi deus gisaz eginen ez zituzten urrats batzueri. Duela hogoi urte, zonbat Ipar Eskualdun ausartuko ote ziren sozialixt agertzerat?

Orai ere, guti ditazke sozialixta alderdian, bainan ainitzek hauxe erraiten dute, lehen ez zena behinere entzunen: «Gu, sozialixtak bezen sozialistak gira». Erran nahi baita: «Gu ez gira sozialixtak bainan heien grina bertsuak ditugu».

Dena dela, ezkertiar «xaharrak» baino ezkerragotik ibili nahi direnen ideia berriek ez badituzte ere batere kotsatuak Ipar Eskualdunak, eta Europatiar federalixta suharrenen asmuek ere ez badituzte oraino seguri hanbat hunkitzen, jadanik ezagun da ideia horien gatik bertze alderdietako politikariak —arrakasta handia aise-nik ukaiten duten politikariak— bide berri batzuetarik apailatzerat ekarriak direla. Bozketa abiatuz geroz, orainokoan ideia berri batzuen aldekoek ez dezakete aise bil ehun bozetarik bostpasei baino gehiago bainan alderdi azkarrenek ere ZERBEIT hartu behar ideia berri horietarik... Badenetz hor berean aintzinamendu balios bantentzat aski mentura, hori geroak erranen du.

Gisa guziz, Frantziako politika-bizia erakitan bezala dago eta Ipar Eskual Herrian ere doi bat bederen senditzen da erakitze horren samindura. Denen buru azken urte hotan akulatu aldakuntzak

gauza guti ditazke ondoko urtetan sustatuko direnen aldean. Ipar Eskualdunek eta Ipar Eskual Herriak zer aterako duten aldakuntza horietarik? Ainitz orobat, erne ibiltzekotan, behar-orduak beti funts gehiagorekin ikusiz eta eskual-nortasunaren begiratzeaz zintzoki grinatuz. Ainitz gazte holako gogo sano batekin dabilta (ez sobera behatu gazte huts izaiteak egin-arazten ahal diozkaten haurkeria batzueri) eta gogo horrek, bihar edo etzi, bai politikaren bidez, bai berdin bertze asko gisetarat, indar berri bat eman dezake gure Eskual Herri maiteari.

Janbattitt Dirassar

EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA IPARRALDEAN

Piarres Xarrittonek

Joan den urrilean, Arantzazuko bileran, bapatean, Piarres Lafittek oro harriturik ezarri zituen, askotan egitea laket duen bezala, hunelatsu ziola: «Hegoaldeko anaiak, ikusten zaituztet berotuak ari, gure «H» famatua zuen euskalkietan sartu nahiz, gure euskalkiekin batasuna egin beharrez, bainan jakin ezazue gurea ez dela konda, gureak egina duela».

Ez nuen nihaurk hortan utzi nahi izan P. Lafitteen errana, bainan gaur behar nuke hemen hobeki haztatu solas hori.

Zertan dugu iparraldean euskal literatura, zertan ere euskara?

Mintzaira bat, eta beraz literatura bat, askotarako balia ditazke; hala nola otoitza, lanerako, ametserako, gudurako edo berriketarako. Egundainotik, ala Bernat Detxepare, ala Lizarraga, ala Axularrez geroztik euskal literatura baliatu izan da otoitza, kristau fedearen zerbitzuko.

Ohidura horri jarraitzen gizaizko iparraldekoak. Ez dut uste oraino ere ba duela gure mintzairak beste nihon, elizan bezalako lekuri. Gogoan har detzagun berriki agertu diren sainduen biziak: Domingo Soubelet-en *Maria Goretti*, J. Baptiste Echeberry-ren *Frantziako erregina*, Piarres Narbaitz-en *San Frantzisko Xabirrekoa*.

Gogoan har ere P. Narbaitz beraren eta Guillaume Eppherren *Eliza liburuak*. Gogoan har oroz gaineratik, Belokeko Aita Diharce, aita Lertxundi eta beste beneditar askoren inguruan, Piarres An-

diazabal eta bere apez lagunek, euskal elizkizun berrientzat egin izan duten lan izigarria. Gure eliza batetako ehorzketa batean aurkitu denak, aitor dezake gure euskal elizetako *irakurgai*, *salmo*, *kantu* ta hitzaldiek ez dutela nihongo erdarazkoeri zorrik.

Zerbait erran behar banu oraino pundu huntaz, hauxe nioke:

- 1-ik.—Ez ditugula gure aberastasun horiek aski, edo batere, baliatzen gure hiri ta hirisketako euskaldunekin.
- 2-ik.—Katoliko Ekintza ez zaikula Liturgia bezain ongi heldu izan, euskal kultura bideetan, loakartzerat utzi dituztenaz geroz, batzuen edo bestentzat asmatu ziren *Pan-Pin* eta *Gazte*. Nolanpait diraukete oraindik *Etxea*-k eta *Otoizlari*-k
- 3-ik.—Problema berri bat oraino garbitzeko duguna, *Kateketikarena* dukegu. Bainan apezzez bestalde, ba dira ere laikoak, hegoaldeko langilekin lan egin nahi dutenak. Ez dugu auzia galduko iratzarririk gaudeno.

Arrantzarako edo lurgintzarako, euskal arrantzale edo laborariek lehen ere beren mintzaira ibili dute. Gaur, aitor dezakegu gure eskualdeetako langileek ez dutela euskaraz asko ikasiko, beren lanerako. Aipa detzagun bakarrik bi liburu azken urte hauetan agertuak, bat, eta lodiena, Leon Aguerre eta Adrien Gachiteguy-k egina: «*Laborantza*», bestea ttipiagoa, Jean Irigaray-ena: «*Larretzarreko laboraria*».

Halere beren amentsen eta asmuen mamitzeko eta hazteko baitzerabilaten gehienik euskara gure arbasoek, orai ere gaurko euskaldunek, pertsutan edo hitz lauz ba dakite, beren gogo-bihotzen berri emaiten.

Nobela edo eleberri sailetan, Dominique Peillen-en «*Gauaz ibiltzen dena*»-z beste lan handirik ez dugu aipatzeko, bainan ensaio ta kondairetan baginituzke asko lan eder edo bilduak edo biltzeko: hala nola Jean Pierre Irachet, Piarres Larzabal, Marie Jeanne Minaberry-ren Kondaira xarmegarriak eta goizegi galdu ginuen Jean Etchepare gaztearen «*Mendekoste gereziak*».

Oroz gainetik, eta Xalbador, Mattin, Esponde edo beste persulariez kanpo, pertsutan ditugu trebe Iratzeder-Diharce «*Zeru-*

mentitik» eta Jon Mirande, Daniel Landart «*Hogoi urte*» eta Arnaud Erdozaincy, Marie Jeanne Minaberry «*Xoria kantari*» eta Mixel Itzaina eta Piarres Hegitza-Duny Petre. Ez, ez dut uste agortu zaikula gure olerkarien iturria.

Dena dela, teatro lanetan ba dauzka iparralde hunek hiru izen orotan ezagutuak: Pierre Bordaçarre Etxahun, Xuberotar pastoral egilea «*Etxahun*» «*Matalaz*» «*Antxo Azkarra*», etabar.—Telesforo Monzón «*Menditarrak*», «*Behorraren ostikoa*», «*Eneko Bizkai ta Maria Lorka*», etabar, eta hunen adiskide Piarres Larzabal «*Etxahun*», «*Bordaxuri*», «*Urriki latza*», «*Herriko botzak*», «*Berterre-rretze*», «*Matalaz*», beste asko, eta azkenik orai «*Ibañeta*».

Damu da hargatik, alde batetik, teatro lan horiek beti arrakasta handiarekin emanak direlarik, ez baitira maizenik liburutan argitaratzen. Eta beste aldetik, antzerki egile gazte anitzik ez baitze-rauku agertzen.

Gazteak aldiz ba ditugu, *Mixel Labeguerie*-k orori zabaldu de-raukun, euskal kantu berrien sailari jarraikitzeke. Entzunak edo entzunen dituzkegu *Eñaut Etxamendi*, *Manex Pagola* eta *Beñat Sarasola*.

1940-eko gerlaz geroz «*Herria*» dugu iparraldeko astekaria eta hemen ere *Piarres Lafitte*, *Etienne Sallaberry-So Egilea*, *Jean Erre-cart* zenaturra, *Ximon Xori*, *Jean Hiriart Urruty*, *Emile Larre*, *Bernat Goity*, *Beñat Dagorret* eta gure adinetako berriketarien ondotik heldu zaizkigu batere duarik gabe, gu baino gazteagoak: *J. Baptiste Dirassar*, *Jean Louis Davant*, *Ramuntxo Camblong*, *Grégoire Eppherre*, *Xalbat Arbelbide*, *Lucien Echezabarreta*, *Jean Pierre Guruchet*, *Jean Baptiste Etcharren*, *Christian Laxague*, *Jean Marie St. Jean*, *Battista Larzabal*, *Daniel Landart* eta ez baitukegu txarrena, *Gexan Lantziri-Alfaro*.

Horiek berak eta beste batzu oraino: *Narbaitz jaun kalonjea* eta *Narbaitz jaun errienta*, *Jean Haritschelar euskalzaina* eta *Jacques Etcheverry irakaslea*, behar ginituzte aipatu Frantziako gobernuak egun oroz gure euskarari bere irratian uzten dion xoko xuhurraren betetzen ari direnak gogoratzean.

Bai zinez erran dezakegu, gure ustez, bizi dela oraino euskal literatura iparraldean: orainokoan ba dauzka mintzalari ta idazleak, entzule ta irakurleak. Hegoaldean bezenbat arabera? Ez da hor gure auzia.

Gure gaurko auziak, batasunaren auziak eta ikastolen auziak dira.

Batasunarena aipatu ginuen Arantzazun. Ba dukegu oraino orok zer egin, elgar ezagutzeko, elgar hitz-hartzeko, ortografiari buruz, baina ere edizionari buruz.

Ikastolena aipatzen derauku Jean Haristchelar-ek. Gero ba dukegu ere entzun-ikuskien, irrati, telebista, zinearen auzia. Horiek orok eta ekonomiak eta politikak eta ideologiak manatzen baitute mintzairaren geroa. Ez, ez dugu zeren loakar.

Ez dugu ere nihondik zeren lotsa.

Piarres Xarritton

*Ipar-aldeko eskualdun gazteek zer dioten hegoaldeko
Eskual Herriaz*

Daniel Landartek

Galdegina izan zaiku, artikulu bat egin ginezan, erranez ipar-aldeko gazteek zer dioten hegoaldeko Eskual Herriaz. Idazlan huntan eginen ditugun oharpenak ez dira nahiko ginuen bezein hedadura haundikoak izanen. Halere ustea ba dugu, ipar-aldeko Eskualdun gazteriak hegoaldeko Eskual Herriaz zer dion, poxi bat goiti beheti agertuko dugula.

Inkesta ttipi bat egin nahi ukan dugu istudiant gazteen artean. Inkesta hunek ez du hedamen haundirik hartu ahal izan, asti edo aizina eskasean.

Gaurko egunean ditugun agerkari, radio eta telebixtekin, iduri luke jendea frango argitua dela, bainan ohartzen gira axalean balin badu ere elasturi, mamian gauza guti daukala, bereziki Eskual Herriaz mintzo girenean.

Dena den, erran behar duguna da, nola gutiz gehienek ba dakiten Eskual Herri bat ba dela. Eta ba dituela zazpi probintzi. Bi pundu hok berak, ez dira balio ttipikoak.

* * *

Gure galdaketari bederatzi ihardespren hartu ditugu. Amasei eta hemezortzi urte arte hortako gazteek daukute ihardetsi. Gu-

ziak Baionako Teknika Eskolakoak. Ihardespenetan zonbait ba dira intres haundikoak. Eskual gauzetan jakitate sano bat agertzen dutenak.

Huna zer galde egin dionkategun:

1. Badea Eskual Herri bat?
2. Badakizia mugaz bestaldean lau probintzi eskualdun ba direla?
3. Zer diozu bestaldeko Eskual Herriaz?

—Bederatzietarik bik lehen bi galdeeri «bai» ihardetsi dute. Hirugarrenari: deusez!

Deusez hunek agertzen daukuna da, gure ustez, zinez deus ez dakitela.

—Batek, hirugarren galdeari deus guti dakiela ihardetsiz, galdegiten ditu gauza hortaz zenbeit argitasun. Dio ere gauza horietaz gazteak ez direla batere edo guti baizik argituak.

—Beste batek diona berriz hauxe da: Bestaldean ere ba dela ba Eskual Herri bat; baina Eskual Herriaren beregaintasuna gogoraturik dio bere ustez ez dela aski aberatsa eta ez duela aski aldeza beregain jartzeko.

Gazte hunek ba daki zerbait, baina ekonomiaren berri jakin beharrean dela, ezin ginezake uka.

—Bortz gaztek, aldiz, diote Eskual Herriak bere zazpi probintziekin beregain jartzeko eskua ba duela beste nun-nahiko populuek edo jendaldek bezala.

Hok ba dakite mugaz bestaldeko Eskual Herriak indar handia daukala industria aldetik.

Uste dugu galde berak beste eskoletara zabaldu bagintu, zerbait goiti beheti, araberako ihardespenak hartuko ginituela.

Ikasle guziak hunkitu bagintu ere ez ginuen ipar-aldeko Eskual Herriko gazteri osoa hunkituko, baizik gazte «ikasten ari dena». Gure aldeko eskualdun gazterian, ez dugu ahanzi behar laborariak ditugula gazte gehienak. Gazte hotaz erran ginezakena da, itxuraz bederen ikaslek baino gutiago dakitela. «Herria» kaseta

irakurtzen dutenek, batere jakitekotz ba dakikete engoitik bestaldeko Eskual Herriaz zerbait berri. Bainan uste duguna da gutiz gehienek, irakurtzen edo leitzen ez dutelakotz, deus guti dakitela gauza hortaz.

Idazlantxo hau ez ginezke burura erran gabe nola ba diren ipar-aldeko eskualdun gaztetan ainitz gazte ixtudiant eta laborari edo beste, eskualtzale direnak. Hok guziek mugaz bestaldeko Eskual Herriaz gauza ainitz ba dakitela ba dirudi.

Daniel Landart

ESKUJARA ESKOLETAN

Jean Haritschelbarek

Duela orai hemezortzi urte jalgi zen lege berri bat Frantzian, «Loi Deixonne» deitua. Lege berri horren bidez sar zitaiken eskuara eskoletan: Unibersidadean (Bordaleko ikastetxe nagusian) bigarren maileko eskoletan (bainan nun eta noiz?) lehenbiziko maileko eskoletan (zonbeit tokitan bederen, errient edo errientsek nahi zutelarik).

Duela hamar urte sortu zen Baionan IKAS deitu batasuna. IKAS-en xederik haundiena da eskuararen sar-araztea Eskual Herriko eskoletan.

Ba du orai lau urte hasi direla Ministerioarekin mintzaldiak Frantzian bizi diren hizkuntza berezietan buruz. Kari hortarat sortu zen «Conseil de défense des Langues et Cultures régionales» deitu batasuna. Batasun hortan sartzen dira. Eskualdunak (IKAS-en bidez), bretoinak, katalanak, okzitanak eta abar...

Huna, orduz geroz, zer ardietsi dugun:

1. *Hirugarren maileko ikastetxe nagusietan* (Unibersidadean), Tolosan, Bordelen eta Pauen, on-hartua da eskuara bigarren hizkuntza gisa. Horrek erran nahi du eskual-ikaslek balia dezaketela eskuara «licence de langues vivantes» eta «licence de lettres modernes» deitu etsamintetan. Gero D.U.E.L. (Diplome Universitaire d'Etudes Littéraires) diploma ukan-eta presenta dezakete «Certificat de langue, littérature et civilisation basques» deitu etsamin berezia beren lizentziaturaren bukatzeko.

Eskuarazko klaseak emaiten dira Bordelen (Lafon jaun eskualzainak). Tolosan (Allières jaun eskualzain langutzaileak). Pauen (Goyenetxe jaun eskualzain laguntzaileak). Bordelen bakarrik «Certificat de langue, littérature et civilisation basques» delakoa presenta dezakete ikasleek. Heldu den urritik harat Lafon jaunak utziko dio Bordeleko unibersidadeko eskual-katedra Hasitschelhar jaun eskualzaindiko buru-ordezkoari.

2. *Bigarren maileko eskoletan (Lycées, C.E.S., C.E.G.).*

Mail hortan aintzinamendu guti izan da. Gure xedea da onhartua izan dadin eskuara bigarren hizkuntza gisa batxilleratoan. Baina Frantses gobernuak ez dauku gauza hori aise emanen. Ez gaude halere indarrrik egin gabe.

Baionako «lycée»-ko buruzagiaren baimenarekin eskual-eskolak hasi dira (oren bat astero) eskualzain laguntzaile den Jakes Etcheverry-rekin. Heldu den urritik harat hasiko dira eskual-klaseak «Lycée technique» deitu bigarren maileko eskolan. Hortan ere Jakes Etcheverry-k emanen ditu. Gauza ber-bera galdeginen dugu Miarritzeko eta Donibane-Lohitzuneko «lycées»-etan.

Donibane-Lohitzuneko C.E.G.-ean ba du orai sei hilabete hasi direla eskual-klaseak Danielle Albizu anderea dela erakasle. Baina ba dira anitz C.E.S. eta C.E.G. Eskual Herrian, nola Baionan, Angelun, Miarritzen, Hendaian, Kanbon, Hazparnen, Baigorriin, Donibane-Garazin, Donapaleun, Maulen-Nehork ez du eskuara erakasten eskola horietan.

Horiek guziak gobernuko eskoletan. Beharda aitortu bertze eskolarik ba dela, bereziki eskola girixtinoak: Aitortu behar dugu ere indar guti egiten dutela eskuararen alde bereziki Baionako eta kostako eskola girixtinoetan. Agian, bertzen etsenplua ikusiz, bermatuko dira hek ere. Dezagun erran indar ttipi baten egiten ari dela gobernoa. Jakin dugu minixterioak izendatuko duela erakasle bat eskuararen erakasteko CES eta CEG-etan. Gauza guti izanikan ere, on da hartzea. Ba dakigu erakasle batek ez dezakela CES eta CEG guzietan heda bere erakaskuntza. Gehiago galdeginen dugu.

3. *Lehenbiziko maileko eskoletan*, segitzen dugu, urte guziz bezala, Eskualtzaleen Biltzarrak eta Ikas-ek emaiten dituzten lanak. Mail hortan ba dakigu ez balinbadute erakaslek borondate onik agertzen ez ditaikela gauza haundirik egin. Erran behar da ere eskola emaitetan anitz erdaldun ba dela eta eskualdun guti.

Bainan mail hortan ere, eskolatik kanpo eskuararen alde egiten diren lanak eta indarrak behar dira aipatu.

Kanbon: Ikastolatxo bat egin dute. Ortzegun guziz ibiltzen dira berrogoi eta hamar ume. Dagneau-Choribit anderea erakasle.

Hendaian: «Haize garbian» deitu batasunak emaiten ditu eskual-klaseak: Oñatibia jaunaren metodologia itzuli dute lapurtar eskualkirat.

Donibane-Lohitzunen Lacarra eskualtzain laguntzaile andereak lan ederrik egiten du eskuararen alde, bai eta ere Danielle Albizu andereak «Amicale Donibandarrak» deitu batasunean.

Donapaleun, Olaizola eta Etxezaharreta jaunek «Club de civilisation basque» bat sortarazi dute.

Ez ditugu ahanzi behar Baionako Eskual erakus-tokian emanak diren klaseak (Jakes Etcheverry-k) eta Polo-Beyries-eko gazteen bil-tokian hasi den eskual erakaskuntza.

* * *

Huna beraz zertan den eskuara gure eskoletan. Gauzak diren bezala erran ditut. Esperantza ba dugu sortuko direla urrian ikastola bi. Inchauspe minixtroaren bitartez gobernuak izendatuko ditu andereño bi. Hortan ere ez dut ikusten hastapen bat baizik. Langile guti da. Ipar Eskual Herrian. Bainan, halere, ari da sartzen gero eta gehiago eskuara eskoletan. Emeki emeki sortzen eta sortuko dira erakasle berriak. Hortan da problema haundiena. Unibersidadeak moldatuko ditu bigarren maileko erakasleak; bigarren maileko erakaslek formatuko dituzte lehen maileko erakasleak, «Ecoles Normales» deitu ikastetxetan. Ez da bertze biderik.

Jean Haritschelbar

GURE EKONOMIAREN HIRU PONDU

Ramuntxo Camblongek

AINTZIN SOLAS

Hemen presentatzen dugun lan hunen egitean, gehienik gosta zaukuna xifreen biltzea izan da. Biziki zail da estudio sakon baten egitea Ipar Euskal Herriaz, INSEE estadistika ofizialak egiten dituen etxearentzat Euskal Herririk ez baida.

Lan hau hastapen bat baizik ez da, beraz. Hiru pondu ikertu nahi izan ditugu, gure ustez geroari buruz premiatsuenak: demografia, industria eta Hego Aldearekin ditugun hartu-emanak.

Gure iturburuak izan dira INSEE-ko bildumak, G.E.T.I.S.-eko lan bat (Hego Aldeari buruz) eta gehienik Enbatak egin ikeretzeak (Davant, Aita Larzabal, Etxemendy, Goyenette...). Erran dezagun ere Baionako «Chambre de Commerce et d'Industrie»-k asko lagundu gaituela Industriariako gauzentzat.

Hiru estudio hauek irakurri aintzin gogoan hartu behar dira xifre hauek (1962-koak).

<i>Probintziak</i>	<i>Eremua</i>	<i>JENDETZEA</i>	
		<i>Denetarat</i>	<i>Km² bakotx</i>
Lapurdi	800 km ²	152.000	190
Basa Nafarra	1.284 km ²	35.000	27
Xuberoa	785 km ²	20.000	25
Denetarat	2.869 km ²	207.000	72

Hiru probintzi horietaz bestalde, beste bi zati aipatzen ditugu hemen:

— Kosta edo itsas aldea (Baiona, Biarritze eta Donibane Loitzuneko kantonamenduak).

— Barnea edo mendi aldea: gelditzen den eremu guzia.

DEMOGRAFIA

IPAR Euskal Herriko jendetzearen goiti beheitik azken 150 urte hauetan.

<u>Urteak</u>	<u>Jendetzea</u>
1801	126.493
1851	162.365
1881	167.317
1901	173.351
1911	182.002
1921	175.955
1936	190.833
1946	192.989
1954	193.542
1962	204.425
1968	218.099

Estadistika hauek, guk eginak dira, INSEE Frantziako etxe ofizialak agertu liburuetako xifrekin. Oso zaila izan da lan hunen egitea, etxe hunendako ez baita Ipar Euskal Herririk. Bakarrik kondatzen dute departamenduek (guretako B. P. koak) eta kantonamenduek.

Bestalde ez dugu orainokoan nahi ginuen urte guziendako egin ahal izan estudio hau. Hala nola, 1846 urtea biziki garrantzitsua da gure eskualde guziarendako (urte hortan baita jendetzea gorenik izan XIX garren mendean) baina ez dugu xifre xuxenik Ipar Euskal Herriarendako.

EMIGRAZIOA: Denek ba dakigu gure demografiaren karakteristika bat dela emigrazioa. Huna xifre zonbeit.

EMIGRAZIOA, XIX GARREN MENDEAN.

Louis Etcheverry, Garaztar suharrak, estudio bat oso baliosa egin zuen Euskal Herri barneko deputatu zen denboran. Huna estudio serio horrek ekartzen dituen xifreak. Ipar Euskal Herri guziaren dako 1892an, Pau-eko «Zientziaren Aurrerapenaren Batasuna»-ren aintzinean presentatu zuen lan hau «Eskualduna» kaseta sortu zuen Etcheverry suharrak. Ikusten dugu 60 urtez kasik 80.000 emigrante atera zirela Ipar Euskal Herritik! Denbora berean, erran nahi baita 1832 eta 1891 artean, 4.729 arimaz baizik ez zen ttipitu hemengo jendetzea. Haurrak nasai ziren eta gure Herriaren indarra harrigarria.

<i>Urteak</i>	<i>Emigranteak</i>	<i>Urtero</i>
1832-1845 (4 urte)	828	208
1836-1845 (10 urte)	10.162	1.016
1846-1855 (9 urte)	16.111	1.614
1856-1864 (9 urte)	12.833	1.425
1865-1874 (10 urte)	17.750	1.775
1875-1883 (9 urte)	5.157	273
1884-1831 (8 urte)	16.421	2.052
Denetarat 60 urtez	79.262	1.321

Beste gauza bat ikusten ahal dugu. 1836 goitik emigrazioa handiago izan dela iduri luke. Ba dakigu lehen karlistadaren ondok ekonomia mugatu Ebro-tik ekarri zutela orai den tokirat eta Ipar Aldeko ekonomia gogorki inarrosia izan zela aldatze hori zela kausa. Gazteek bizipide gutiagotuz zuten hemen, eta Ameriketarat joaiten ziren.

Bixtan da, Ipar Euskal Herrian, Europa guzian bezala, industriari eta hirieri buruz denbora hortan abiatu zirela baserritar gazteak. Baina hiririk ez ginuen eta industria guti.

EMIGRAZIOA XX-GARREN MENDEAN.

Nehork ez du egin, gure denborarentzat, estudio oso bat gai huntaz. Estudio berezi batzu egin izan dira gure Herriko eskualde edo zati batzuentzat. Horietarik bi aipatuko ditugu hemen Ipar Euskal Herriko emigrazioaren ideia zuzen bat emaiteko gisan.

Garazi Baigorri-n eta Amikuze Ostibarre-n.

Aita Grandin ekonomistak toki horietako gizon kartsu batzuen laguntzarekin egin ditu bi eskualde horietaz, guk, barne edo mendi aldearendako, ezagutzen ditugun estudiorik hoberenak. Hor ikusten da bi eskualde edo herrialde horiek 1954 eta 1962 artean galdu dituztela 1.100 bat jende *bakotxak*.

Ber denboran, 1.000 bat inmigrante sartu dira, edo beste eskual herrietarik, edo kanpotik, eskualde horietan.

Erran ditake beraz, Aita Grandin-ek berak dion bezala, 8 urtez 1.500 bat emigrante izan dela *eskualde bakotxetik*, heldu baita eskualde bakotzarren jendetzearen %-eko 1,25 *urtero*. Kanporat joan den jende gehiena gaztea zen.

Beraz emigrazioaren ritmoa XIX-garren mendean bezalatsukoa da.

Kosta aldean.

Harrigarri dena, Baionako Ingurua, adineko erretretatuz, barretik jin jendez eta 1962 inguruan Algeria-tik etorri «Pied Noir» edo «Zango Beltz»-ez asko emendatu balin bada ere, bertako jendea, bertako gazteak ihes joan dira Frantziako hiri handietarat. Huna xifre harrigarri batzu.

1954 eta 1962 artean: 9.500 jendeak utzi dute Baionako Eskualdea. (Denetarat 95.183 egiten ditu.)

Huna emigrante hoiien adinak:

20 eta 45 urte arte: emigranteetarik %-eko 55.

44 urtez petik: emigranteetarik %-eko 85.

Donibane Loitzun-eko kantonamenduan igual.

1954-etik 1962-ra jendetzea 600 ariman emendatu da *urtero*, bainan denbora berean *urtero* 100 gaztek ihes egin dute Euskal Herritik kanpo.

Beraz, Ipar Euskal Herri *guzia* jotzen du min berak. Ikara-garriko min biziak! Jende gaztearen emigrazioak. Lerro hauek ixkiriatzean, ukan dugu Eskualdun Gazteria-k (1) aurten egin duen inkesta Euskal Herri barnean. Hor irakurtzen dugu 1968-an 15 eta 20 urte arteko gazte guzietarik %-eko 9,3 joan direla herritik kanpo.

Huna 20 urtez petik eta hogoi urtez goitik gelditzen diren gazteak nola banatzen diren Ipar Euskal Herri barnean.

20 urtez petik	mutikoak %-eko 34	nexkak %-eko 33
20 urtez goiti	mutikoak %-eko 21	nexkak %-eko 12


Orotarat ba dira beraz %-eko 67, 20 urtez petik; eta %-eko 33 bakarrik 20 urtez goiti. Diferentzia handi hortan ikusten da zombatek ihes egin duten lan bila.

Noiz arte irauten ahal du hoinbertze gazte galtzen dituen herri ahulduak?

KOSTA EDO ITSAS ALDEA GOITI. BARNE EDO MENDI ALDEA BEHEITI.

Hemen agertzen dugun bezala, barnea azkarki husten ari da, Itsasaldea berriz, goiti bereziki, 1921 eta 1936 artean eta gero

(1) Baionako inguruan ezarriak: Baiona, Biarritz, Angelu, Bokale, hiriburu, Mugere.



Hazparne:

Kantonamendu buruak

AMIKUZE:

Eskualdeak



Bidaxune

Bastida

AMIKUZE

ARBELA

Donapaleu

Iholdi

OZTIBARRE

PETTARRA

Maule

Donibane-Garazi

GARAZI

Atarratze

BASABURUA

1954-etik orai arte. Erran dezagun, barnean kantonamendu guzietan beti jende galtzen ari izan direla, *salbu* Ezpeletakoa (bereziki Kanbo-ri esker). Hau aspalditik goiti ari da eta azken zortzi urte hotan Uztaritzekoa ere (Baionari hurbil delakotz) goiti joan da pixta bat.

<i>Urteak</i>	<i>Itsas Alde</i>	<i>Mendi Alde</i>	<i>Denetarat</i>
1876	59.281	100.521	159.802
1911	82.825	99.177	182.002
1921	84.395	91.560	175.955
1936	100.375	90.458	190.833
1946	105.417	87.572	192.989
1954	109.054	84.488	193.542
1962	125.964	78.461	204.425
1968	138.222	77.877	218.099

Hobeki erakusteko oraindik barnearen hustea, agertzen ditugu hemen Amikuze-Ostibarre eta Garazi Baigorri-ko jendetzeen goiti behetiak. Espres, hautatzen ditugu bi eskualde horiek erakusteko ez nekazaritzak bakarrik (Donepaleu-ren politika), ez turismoak bakarrik (Donibane Garaziko politika) ez dutela salbatuko gure Herria. Eskuinetik edo ezkerretik, zakutik edo zorrotik, industria behar dugu muntatu. Huna beraz bi eskualde horien jendetzearen behetitzea. Bestalde ikusten dugu, hor, Atarratzeko kantonamenduaren behetitzea. Eskualde hau oso menditsua da eta bizipideak nekeak ditu, baina ez da besteak baino askoz gehiago hustu. Haatik geroari buruz etorkizun txarragoa duela iduri luke.

Gizon-emazteak.

Berriz ezar dezagun Eskualdun Gazteria-k bere inkestan ateratzen duen xifre izigarria. Barnean 1968-an.

20 urtez goitiko gazteetan: Mutikoak: %-eko 21. Nexkak: %-eko 12.

Ez da gehiago bi mutikoendako nexka bat baizik.

Azken hamar urte hauetan ba dakigu problema hau zinez izigarria, gero eta gehiago handituz ba doala gure eskualdean. Familiak ttipituz, ez da gehiago haurrik ere izanen barnean. Baiona inguruan berriz emarte gehiago ba da gizon baino. (Jendeen %-eko 54,3 emazteak dira). Baina baserritarrek hauetarik zonbeit biltzeko beren bizi moldea puska bat hobetu behar lukete!

Jendearen aktibidadea.

Huna Baiona inguruan 1962-an nola zen aktibidade hori:

$$\frac{\text{Jende langilea} \quad 36.850}{\text{Jende guzia} \quad 89.340} = 41,2 \text{ (Frantzia-n 43)}$$

Beraz, erran bezala, jende adineko edo erretretatu asko ba dira kosta aldean. Bestalde emazte askok lan egiten dute (administrazio eta zapataintzan). Huna proportzionalan:

gizonak: langiletan %-eko 64
emazteak: langiletan %-eko 36

Barneko ez dugu estadistikarik. Erran dezagun bakarrik laborari etxen buruzagi askok ba dutela 60 urtez goiti eta horrek gibelarazten duela hainitzetan laborantzaren erreberritzea eta gazte asko desgustatzen.

Oharra: Ditugun xifrekin ezin dugu Ipar aldeko adinen edo edadeen piramida bat egin ahal izan.

I N D U S T R I A

Ipar Euskal Herrian industria guti da. Eta industria hunen estrukturak edo eraikidurak oso ahulak dira. Hala ere zonbeit hitz erran nahi ditugu gai huntaz: industriaren azkartzeari edo, hobeki, sortzeari buruz behar baitugu jokatu. Gure ustez, huntan da, gure ekonomian egiteko den lehen lana.

Hitz edo ele eder asko erran eta idatzi izan dira gure industriaz, baina ez dugu estudio objetibo bat ere ezagutzen. S E D E S Parisekoak, ekonomia eta soziologiako estudioak egiten dituen etxe batek, atera du 1962 inguruan gai huntaz lan handi bat. Bi pondutan ez gira harekin ados: Ipar Euskal Herria bi zatitan ezartzen du, barnea edo mendi aldea eta kosta edo itxas bazterra (beti bezala Baionako Inguruarentzat (1) egin du estudio sakon bat, baina barnearentzat arinago bat). Bestalde industria kondu saetzen ditu «artesanía»-ko lantegi asko.

Gure aldetik, «amateur» gisa maleruski, maiz bezala, ikertze bat hasia ginuen duela zonbeit ilabete. Hunen dako baliatu gira SEDES-aren estudioaz, baina geiago oraindik, Baionako «Chambre de Commerce et d'Industrie»-ren laguntzari esker bildu ahal izan ditugun xifre batzu.

Huna beraz zer izakera kausitu diogun gure industriari.

Lehenik: Gure herriak, bereziki Ipar Euskal Herri barneak, galdu ditu lehengo industria batzuk, mende berriak eskatzen zuen arramoldatzearen edo erre-berritzearen eskasean.

Banca-ko herri ttipian 1850-ean burdingintzan ari ziren 300 langile. Mendive-n bi labe handi ba ziren eta Ahaxan 100 bat jende estali egiten ari ziren. Hauek denak Garazi aldean; gaur denak galduak dira. Ongi ezagutzen dugun herri ttiki batean, Lahuson 1914-eko gerla inguruan 100 langilez goitik lan egiten zuten «harri xurietan» (2). Gaur 25-ek bakarrik. Xubero gainean berdin, Aita Lhande-k kondatzen du zonbat industriako lantegi ttipi baziren (3).

(2) Harri xuriak deitzen dituzte Luhoso-ko feldspoth eta kaolin harrobiak.

(3) Aita Lhande: «Autour d'un Foyer Basque» liburuan.

Gaur egun denak galduak dira. Beraz, ez da bakarrik industriadik ez sortu gure Herri aldean, bainan ziren industria asko galdu ditugu: des-industrializatu da gure herria (4). Eta, geroxago ikusiko dugun bezala, barnean, orai ere segitzen du fenomeno hunk.

Ez dugu, maleruski, industriaren eboluzioaren estudio bat presentatzen ahal gaur. Egund batez pentsatzen dugu baietz, ikusi behar baitugu zeren gatik eta nola gertatzen zaikun hori.

Bigarrenik: Lantegi gehienak ttipiak dira eta denetarat lantoki guti da gure industrian. G. Viers Toulouse-ko Unibersidadean Erakasle denak dio Gipuzkoak bakarrik ba dituela Frantzia aldeko Pyrenées guziek baino doblea geiago langile industrian (5). 1962-ko estadistikek diote % 25-ek baizik ez zutela industrian lan egiten B. P. departamenduan. Gure ustez, Ipar Euskal Herrian, Biarnoan baino gutiago da oraindik, Lacq bezalako industri toki handirik ez baitugu. Huna zer xifre atera dugun gure ikertzea egitean.

<i>langileak</i>	<i>lantegiak</i>
1.000az goiti	1
500ez »	4

Hau Lapurdi eta Basa Nabarrarentzat (6). Ikusten den bezala, lantegi ttipiak dira gehienak. Xifre hauek 1966-ekoak dira. Gaur, 1969-an hiru lantegi heltzen dira 1.000 langiletarat, hiruak Baiona Inguruan dira.

100-ez goiti	25
50 eta 100 arte	35
25 eta 50 arte	70
25-ez petik	285
Denetarat	415

(4) Desindustrializazioe hau bera gertatu da bai Britainian bai Okzitanian. Oso ederkki esplikatzten du hau Pleven-ek «L'avenir de la Bretagne» liburuan. Ikus ere R. Laffon-en «La Revolution Régionaliste».

(5) Ikus «Que sais je» liburu lerroan «Les Pyrenées» deitzen dena.995-gna.

(6) Baionako «Chambre de Commerce et d'Industrie»-an barne dira bakarrik bi probintzia horiek. Xuberoa, Biarnoarekin lotua da.

Xuberoan 2.500 langile badira gaur industrian. Maulen berean 1.935 langilek lan egiten dute 21 lantegietan. Handienak (F. I. T.) 400 langile ditu. Xubero gainean (Atarratze) 7 lantegietan 170 langilek lan egiten dute.

Erraiten ahal dugu denetarat 18.000 lantoki ba direla gaur Ipar Euskal Herriko industriako lantegietan eta hori 500 bat lantegietan.

Hirugarrenik: Industria hunentzat ohargarri dena; indarrik eza edo bere gaintasunik eza. Hemen agertzen ditugu industria mota nagusienak eta beren langileen nonbrea.

<u>Industria motak</u>	<u>Langileak</u>	<u>Lantegiak</u>
Burdingintzan	3.947	
Etxegintzan	3.600	120
Kimian	1.035	14
Elektrikan	320	11
Alimentazioan	1.820	45
Zapataintzan	1.750	19
Soinekogintzan	405	16

Industria mota azkarrenak Burdingintza eta Etxegintza ditugu.

Burdingintza Baiona Inguruan da azkar: Aeronautikaren dako egiten du lana. Gaur 4.200 langile badira industria mota huntan. Bi etxek bakarrik (Breguet eta Turbomeka) okupatzen dituzte langilen % 60. Industri-molde hau biziki hurbildik Pariseko estadoaren politikari lotua dago. Ez ditake segurki erran zer etorkizun duen. Hasteko gauza bat segura da: ez du momentuan gure eskualdeko ekonomiaren bultzatzeko ahalik.

Etxegintzan, hainitz lantegi ttipi. Asko lan ere bada, bereziki itxas aldean. Erran dezagun hemen, mugaz bestaldetik goiz guziz etortzen diren langile gaizki pagatuari esker dutela irauten hainitz lantegik.

Zapataintzan eta konserbutegietan azken urte hautan krisa

gogorra izan da. Hasparrenen 1.100 langiletarik 530-etarat jautsi dira eta 5 lantegi hetsi dira. Azken 15 urte hauetan Donibane Loitzunen 15 konserbutegietarik 7 galdu dira eta 1.500 langiletarik 1.100 etarat jautsi dira.

Xuberoan memento txar berak izan dira industriarentzat bainan erren ditake hala ere hango ekonomiaren buruzagiek hobeki ihardoki dutela bereziki espartin egintza utzirik batzu lotu direlarik kautxu industriari. Huntan ari da lantegi handiena (F. I. T. 400 langile) Espartingintza beti kenkatzarrean dago: gerla aintzin Aguer lantegiak, urtero, 10 edo 12 miliun espartin pare egiten zituen. Gaur 4 miliun bakarrik.

Laugarrenik: Baionako Inguruaren zentralismoa.

Huna zer tokitan diren multzokatuak Ipar Euskal Herriko lantegiak. Beren eskualdean den Hiri handienaren inguruan bildu ditugu lantegi horiek (10 Km. inguruan diranak). Hiri buru horien hautua ez da ofiziala, guk egina da. Hala nola orain arte industriaren hiri buru diren Donibane Loitzun, Hazparne eta Maule hiriez bestalde hautatu ditugun Donapaleu eta Garazi-Baigorri iduritzen baitzauku bi toki horietan behar litaikela lehen bai zerbeit industria sortu.

Donibane Loitzun-Ziburun

58 lantegi	Industria nagusienak
2.300 langile	konserbutegiak, burdingintza

Hasparne - Kanbo

25 lantegi	zapataintza
1.300 langile	etxegintza

Maule - Atarratze

2.500 langile.
32 lantegi

Garazi - Baigorri

9 lantegi
200 langile

Donapaleu

6 lantegi
120 langile

Baiona Inguruan

308 lantegi

12.000 langile

Lantegietarik %74 eta langiletarik %70 Baiona Inguruan dira. Azken urte hauetan molde hori oraindik gehiago gaixtatu da. Tarnos-eko «zone industrielle»-ari esker hainitz lantegi berri muntatu baita, aldiz Euskal Herri barneak (bereziki Hazparnek) galdu ditu industriako lantegi eta langileak. Bainan iker dezagun hau urbilagotik.

Bosgarrenik: Industriaren aldeko politika bat falta dugu.

1965-ean Bokaleko Labe Handiek (7) beren atea hesten zizuten (aintzina segitzeko eta beraz erreberritzeko gogoia izan bazuten beren buruzagiek, tokiko ekonomiaren zabaltzeko, zerbait asmatzen ahal zen Hego aldearekin eta Lacq-ekin lauzkatuz. Bainan buruzagiak paristarrak ziren). Erran bear da 1963-tik haste gaitzeko arramoldatzea abiatua zela eta egiazki hein batean ongi antolatua.

Arramoldatze hori 1.500 langile ohieri toki berri baten muntatzeko izan da. Geienek Bokalen berean hatxeman dute beste lantoki bat. Bainan gazte langile berri guti sartu da lantegi horietan.

Bokale eta Tarnos-eko lantegi «toki berezian» industria berri asko muntatu da: Kimiako bi lantegi gotor, elektrikako lantegi bat, burdingintzako lantegi handi bat (Turbomeca, airekoen motor bereziak egiten dituen) lantegi ttipiako batzuekin bere inguruan, mubleintzako etxe bat. Adour ibaiaren ondoan eraikia izan da ere zementoko fabrika bat.

—Denbora berean, pirka pirka, aspalditik bezala barnea husten ari zen. Hazparnek galtzen zituen 600 lantoki eta 5 lantegi. Gaur 130 langile ba dira oraindik hemen lanik gabe. Langilen adina 48 urte inguru dabil.

Gazte guziak badoatzi...

(7) Labe Handiak = Altos Hornos = Hauts Fourneaux.

Maulen ere gazteak joan dira, krisa zelarik. Gero, lantegi berri batzu muntatu direlarik portugesak ekar-arazi izan behar dituzte. Gaur ere xuberotar gazteak Frantziako hirietarat ihes egiten dute, paga hobeak direlakotz han.

Donibane Loitzunen, musika bera. Geroa ere ilun. Konserbategi azkarrenak ez dira Baionarat joanen?

Eta beste zozbat Ipar Euskal Herriko eskualdetan gauza bera. (Ustaritzeko irintegi bat hetsi eta abar...)

—Egia erran Baionan berean ere galdu ditugu lantegiak. (M. A. B. harmagintzako etxea, Cottonniere Basquaise oialgintzako etxea...) Bainan lan berriak beti sortu dira hemen. Erran dezagun hemengo herri gizonak, politika industrial bat ez izanikan ere, maizago entzuten eta okupatzen direla industriaz barnekoak baino.

Erran dezagun ere Bokaleko Arramoldatzearendako barneko eta itsas aldeko herri gizonen elgertasuna handia izan zela. Aldiz fitsik Hasparne, Maule edo Donibanerendako.

Baionako Inguruap industria handitu eta azkartu da. ez aski ahatik, barnean industria berrien sor arazteko, ez eta hurbildik ere barneko gazteen lantoki bat emaitako. Huntan Baiona eta beste eskualdeen hartu emanak arras kanbiatu behar dira.

Urtero Baionako 1.200 ikasle dituen Eskola Teknika-tik ateratzen diren gazteetarik %70 joaiten dira Euskal Herritik kanpo. 1954-etik 1962 rat Donibane Lohitzuneko eskualdea 600 arimaz emendatu da urtero. Ber denboran, urtero Donibaneko eskualde hortan berean, 100 gaztek ihes egiten zuten beren sor-herritik, lan eskasez.

Ba dakigu, barnean, emigrazioa, gazteen emigrazioa ikaragarria dela eta aise ikusten da, xifre absolutuetan ere. Kosta aldean ixilago baldin bada emigrazio hori, ni beldur iguala dela. Jende adineko hainitz jiten da erretreta hartzerat gure eskualderat. Bestalde hirugarren sektorea izigarri handia da Baiona Inguruan, bereziki komertzio ta administrazioa. Horiek gordetzen dute bai gazteen, emigrazioa, bai gure ekonomiaren ahulezia.

Huna bi gauza horientzat Baiona Inguruarentzat bildu ditugun xifreak 1962 urtearendako.

Baionako Inguruan:

$$\frac{\text{Jende langileak} \quad 36.850}{\text{Jende guziak} \quad 89.340} = 41,2$$

Frantzian batetik bertzera ba da 43-ez goiti. Beraz jende langile gutiago dugu hemen. Erretratu (eta behar bada beren diruen arrandaz bizi diren!) jende gehiago.

Hiru sektoreen handitasuna
Baiona Inguruan

Lehen sektorea	%-eko 3,6
Bigarren sektorea	%-eko 36,4
Hirugarren sektorea	%-eko 60,0

Beraz industria sortzeko ba dira langile gazteak eta ba du ekonomian hartzeko toki ederra.

BURURATZEKO: GEROARI BURUZ ZER EGIN.

Erran dezagun lehen lehenik, behar beharrezkoa dela guretzat industria baten sortzea gure aldean. Traba eta neke handiak ditugula, segur. Bainan ez da ezin eginik. Lantegi berrien jartzeko, gogo berri bat, izpiritu berri bat gure herriaren alde sortu behar dugu. Lan hau hasia da. Gero politika industrial bat sortu behar eta huni buruz, aipatu baizik ez ditugu zonbeit ideia:

- psikologiaren aldetik; eskualduneri konpreniarazi behar dugu ez duela turixmoari kalterik egiten, eta ez dutela «gorrien» beldurrean bizi behar industria aipatzean.

- industrialeri erakutsi, jende serioesak girela, lanaren egiteko eta industriaren aldeko giro bat sortu (batasun ekonomikoak, eskola teknikoak, esposizioak, eta abar...).
- diru aldetik hastapenean diru-laguntzak sortu, «industrial eremua»-k («zone industrielle» edo «poligono industrial») ezarri.
- demografiaren aldetik: zenbat enpleguren beharra dugun atera urtero.
- kanpoan diren euskaldun industrialak edo industrietako buruzagiak ohar-arazi Euskal Herriaren beharrez.
- Batasun bat sortu egiteko horien kudeatzeko eta organitzatzeko.
- gure ekipamendua hobetu: bideen aldetik, telefono aldetik...

Beharrezkoa da Euskal Herri barnearentzat Iruñetik Baionarako auto-bidea *absolutuki* egitea. Hemen agertzen ditugu orai Baionako portuaren harat hunatak, portu hunen inguruan, eta huni esker, gure ustez, sortzen ahal baitugu aisenik industria.

Baionako portuaren harat-hunatak:

1958:	714.000 tona
1959:	975.000 t.
1960:	1.335.000 t.
1961:	1.775.000 t.
1962:	1.520.000 t.
1963:	2.100.000 t.
1964:	2.266.893 t.
1965:	1.988.183 t.
1967:	2.367.608 t.

1961 eta 1962 artean aldatze handia izan da Bokale-ko Labe Handiak (7) hestean. Bainan artoari esker portuko harat-hunatak

(8) «Basses Pyrenées» departamenduak hartzen ditu Ipar Euskal Herria eta Biarno. Bere hiriburua Pau da.

emendatu dira. Geroztik Lacq-eko «asufre»-ari esker beti goiti doatzi. Baionaki portua ez da handia bainan mariñelen arabera oso ederki antolatua, biziki pratikoa. Denbora gutiz, gauza asko, karga eta deskargatu ondoan berriz itsasorat joaiten ahal da.

Bilduma ttipi hau ez ginuke bururatu nahi, okasioneaz balia, gure Hego aldeko anaieri dei bat egin gabe. Hoinbertze industria eta industriako buruzagiak dituen Herriak indar bat ez lukea egiten ahal Ipar alderat. Hemen gazte asko dago lanaren goait, lan-toki baten ondotik. Herri askok laguntza handiak egiten dituzte lantegi berrieri... eta, gero, Ipar aldea ez dea Europari buruz... lehen pausoa?

Zuen goait gira:

HEGO ALDEAREKIN HARTU-EMANAK (Komertzioan)

Hemen presentatzen ditugun xifreak Domintxineko eskualdun jakintsu eta suhar batek egin estudio batetarik ateraiak dira. Lafaurie jauna, alabainan, ENA eskola famatutik ateratzen da eta eskualduna da. G.E.T.I.S. batasunaren laguntzarekin egin du ikeretze balios hau. Hemen ezarriak diren xifreak «Basses-Pyrénées» departamendu (8) osoarendako eginak izan dira. Huna, laburzki, zer irakurtzen dugun estudio hortan.

1. *Hego alde guzia erosle handia da B. P. departamenduarendako.*

Huna Aduanak eman estadistikak B. P.-tik Alderako esportazioendako:

	1965	1966	1967	67/65
Balioa (mila frankotan)	68.600	108.900	115.000	+ 68%
Zenbat (tonaka)	191.871t.	335.600t.	420.000t.	+120%

B. P. eskualdeak saltzen du Hego alderat erosten duen baino doblea gehiago. B. P. eskualdearentzat Hego aldea bigarren eroslea da Alemaniaren ondotik. B. P. eskualdearen esportazione gutietarik %-eko 15 Hego alderat eginak dira.

2. *B. P. eskualdea, Hego Aldeari buruz, herri gibelatuago edo atzeratuago bat bezala jokatzeko da elgarren arteko hatu-emanetan.*

Gauza edo ekei naturalak saltzen ditu eta gauza landuak edo makinak erosten. Alabainan gehienik saltzen dituen gauzak dira: artoa (250.000 tona edo 76 miliun franko 1967-an), egurra (55.000 tona), kimiako ekeiak (25.000 tona, 13 miliun frankorentzat), «asufrea» (36.000 tona, 7 miliun frankorentzat), aluminioa (18.000 tona, 7 miliun frankorentzat, eta gauza landu guti.

Erosten ditu aldiz, mekanikak, zapatak, oihalak, mubleak eta frutuak.

Huna hemen sal-eroste horien ageri labur bat.

	<i>Saltzeak Hego alderat</i>	<i>Ekartzeak Hego aldetik</i>
Laborantzako gauzak		
Alimentazioko gauzak	% 42	% 58
Asufrea. Mineralak	% 16	% 3
Kimiako ekeiak	% 20	% 2
Gauza landuak	% 22	% 37

Sal-erosten esturktura hori ikusten da oraindik erosi edo saldu tona bakoxtaren prezioan.

Hego alderat joaiten den tonaren prezioa = 332 franko.

Hego aldetik jiten den tonaren prezioa = 910 franko.

Hiru arrazoin ba direla hunen esplikatzeko iduritzen zaio Lø-faurie jaunari bere inkesta egin ondoan:

- B. P. eskualdeko industrialek ez dute aski ikertzen Hego Aldeko merkatua.
- B. P. eskualdea ez da aski industrializatua (jentzearen hiruetarik bat da industria ari lanean: 130.000 langiletarik, 68.000 bakarrik).

- B. P. eskualdeko industriako buruzagien informazioa oso txarra da eta beren «ustekeriak» handiak Hego Aldeari buruz.

3. *Geroari buruz: Hego Aldearen Merkatu batuan sartzea.*

Iduri luke, oraiko solasen arabera (eta Lafaurie jaunak bai Parisen bai Bruxellesen oso hurbildik segitzen ditu solasketa hauek Merkatu Batuaren eta Hego aldearen arteko akordioaren lehen pausoak edo mailak irauin lezakela 6 urte: hola bi alderdiak hobeki prepara litazke integrazio oso batetarat.

Zer erran ditake lehen akordio hortaz?

—Ekonomiako muga asko ezeztatua litake industriako gauzentzat 6 urte horietan.

Hego aldeko gauzek 4 urteren buruan %-eko 70 edo %-eko 80 dretxo gutiago paga lezaketē. Hego aldeak, berriz, 6 urtez %-eko 40 ez ttipi lizazke bere dretxoak Merkatu Batuko gauzendako.

—Ororen buru, iduritzen zaio Lafaurie jaunari, B. P. eskualdearendako partida zaila izanzen dela muga idekitze hori, bainan on eginen duela eskualde hunen ekonomiari. Dio bereziki, biziki hurbildik ikertu beharko direla, lagundu edo begiratu beharko diren sektoreak eta lantegiak.

B. P. eskualdearen industriarendako merkatua handituko da eta, gain gaintik premiatsu dena, ez da gehiago Europaren punta bat izanzen bainan hoinbertze aldiz bere Kondairan izan den bezala Iparretik Hego alderako pasa-toki bat eta aldrebes.

Ramuntxo Camblong

GURE LABORANTZAZ EDO NEKEZARITZAZ

Jean Louis Davantek

Ipar Euskal Herriko ekonomiaren eta jendetzaren ongi eza-gutzea zinez neke da. Ez dugu estatistika berezirik. Alabainan, Frantziarentzat ez da Euskal Herririk. Zibero, Basa-Nabarra eta Lapurdik ez dute izate ofizialik. Beren eta Biarnesen nahiaren kontra edo aurka, Frantziak 1790-ean Biarnesekin eman zituen «Basses-Pyrénées» izeneko departamenduan, Euskaldunen Biltzarrak eta Legeak indarrez kendurik. Departamendu hortan, Biarnesek dute maioria: 26 kantonamendu edo ballera, eta hanbat ordezko Kontzeilu jeneral edo Diputazionean; Euskaldunek aldiz 15.

Beraz, orainokoan ez dugu gure estatistikarik. Departamendu osoarenak hartu behar ditugu. Huna 1962-ko xifre zonbait:

	B. P. departamenduan	Frantzian
Laborantzan, arrain-tzan, mietan, harrobietan	% 43 langile	% 25
Industrian	% 25	% 37
Komerzioan	% 32	% 38

Laborantza «nagusi» dugu Ipar Euskal Herrian. Turismoak ere jende askori lana emaiten du... urtean bizpahiru hilabetez. Industria zinez ahul dugu eta gehienetan beheiti ari. Nekezaritzza da gure hiru probintzien behi zahalduna: toki menditsu eta etxalde xumetarik atera behar ditu bizipide larrienak.

KOLONIA BATEN BIZIPIDEAK

Hiri handirik ez dugu. Nekezaritzaren emaitzak toki urrunetarar saldu behar ditugu eta beste gauzak urrutian erosi. Eredu edo etsenplu bat: batzuek ardi deizteko tresnak ezarri dituzte. Baina puska zerbait hausten balin bazaiote, ordaina ekar arazi behar dute Nevers hiritik! Harat-hunat horiek denbora luzatzen dute eta prezioak emendatzen. Hanbat mozkin gutiago nekezarien eta eskualdearentzat. Merkatuak ere hola galtzen ahal dira.

Gure laborantzak bere emaitza gehixenak diren bezala saltzen ditu kanporat, landu gabe, industriaren ekei: artoa, esnea, aragia, zurra... Bide horrez, lan eta diru asko gal ditake. Alde batetik ekeien prezioak arrauka beheiti badoatzi beti. Bestetik ekei horien lantzeak dakarren mozkinaz ez da guretzat. Hori bera da gertatzen Asia, Afrika eta hego-Ameriketako eskualde neo-kolonizatuetan.

Gainerat sal-erospenetan monopoloz edo oligopoloz batzuen meneko gira. Hala nola, ardi esne saltzaleek Roquefort eskualdeko gazna egingiekin dituzte beren hartu-eman guziak. Sozietate horiek esnea mementoan ongi ordaintzen dute. Baina luzara kalte handia ekar dezake ez beste hauturik ukaiteak. Behi-esnea ez da hain ongi pagatua. Ipar Euskal Herrian dauden bi esnekagiak nekezian daude. Barnean bide asko egin behar dute esne gutiren biltzeko. Haragiaren merkatua aldiz, Frantzia beheko hortako kapitalista multzo ttiki batzuen eskuetan dago osoki. Bildots ttikiak ongi saltzen dira, eskualde bakar batzuetako mozkinak izanez Artoa ere mementoan emaitza segurra da, baina hein bat eremu behar duena tresnen baliatzeko.

Hitz gutiz erraiteko, lurraren emaitzak (janari eta ekeiak) arauka gero eta merkeago saldu, eta industriako gauzak gero eta karioago, garestiago-erosi behar ditugu.

Industria guti dugu. Laborantzan soberakin direnek Pariserat edo ipar Ameriketarat lanketa behar dute, Portugues-ek bezalaxe. Urtero, bere 200.000 bizizaletarik 2.000 galtzen ditu Ipar Euskal Herriak. Gazteak, bistan da. Horien altzatzea zinez gostarik zaiku,

dela xuxenka, dela guhauk ordaintzen ditugun alokazioen bidez. Gazte baten altxatzea 5 miliun zahar gostatzen da, jakintsunen arabera. Bi milena beraz: 5.000.000 L. z. X 2.000 = 10.000.000.000 L. z. Urtekal, gure Ipar Euskal Herri xumeak 10 miliar zahar emaiten ditu Frantziari eta ipar Amerikari. Ez ote da izigarri? Bi mila gazte horiek, adinik hoberenean, zer lanak ez dituzte eginen, alokairu ttiki batzuen ordain? Urruneko aberastsen aberasten ari gira. Eta uste dugu heiek biziarazten gaituztela... Hori guzia deitzen da naski alienazionea.

LURRA NORENA DA?

Euskal Herriko laborantzaren gora-beherez ez ditake luzaz mintza lurraren jabetasuna aipatu gabe. Jabeak eskubide guziak badituia? Askotan iduri luke. Etxetiar edo bordari batzu kanporat manaturik ikusten ditut, itxura guzien arabera zuzentasuna eta legea beren alde dituztelarik.

1964-eko udaberrian, gertakari serioen abiadura izan zen Donapaleuko kantonamenduan, nagusi eta etxetiar batzuen artean. Nagusi zonbaitek bordari andana bat kanporat manatu zituzten. Amikuzeko laborari gazteak elgarretaratu ziren, etxeko jaun eta premu asko barne. Beren ikusteko era kasetetan agertu zuten, hiruetan hogoi lagunek beren izenaz bermaturik.

«Herria»-n ere agertu zen artikulua hori: «Auzi bat Amikuzen». Gazteek orroitarazten zituzten, bereziki, Elizaren erakaspen zonbait, guziz Joanes 23-garrenak «Mater et Magistra» gutunean agertzen zituenak. Hortan dio larri-larria, lurra gizon guzien onerako dela, nahiz ez duen jabeen eskubidea ukatzen.

Azken gerla edo gudu handiaren ondotik, Parisen egin dituzte lege batzu etxetiarren laguntzeko frango onak. Bainan lege horik jadanik higatzen hasiak dira. Beharrak aldiz emandaten ari zaizkigu.

Nagusi handi batzuek bordariak kasatzen edo ohiltzen dituzte eta beren etxaldeak batetarat bildurik, mutilez ibiltzen. Etxetia-

rrentzat kalte da. Baina Euskaldun zintzo guzientzat ere. Horrela gure herriak gero eta gehiago husten dira.

Beste lanjer bat, behar bada lehen hau baino handiagoa: hiritar aberatsen laborari etxeak burrustan erosten dituzte, bakan-tzetako eta aste ondarretako «résidences secondaires» direlako bigarren egoitzen egiteko. Guziz itsas aldean. Bide beraz, lurraren prezio goiti doa. Lur-lanaren emaitzekin ez du deus ikustekorik askotan. Etxalde bat erosten duten laborarientzat, zinez neke da araberan tresnatzea. Etxe partimenek ere xeha dezazkete ipar Euskal Herriko etxalde xumeak.

Asko erran ditake lurraren jabetasunaz. Baina gauza bat segura da: gure nekezaritza ez ditake urrun joan oraiko «ordrea», dretxoa eta lurren gobernu zinez aldatu gabe. Euskal Herriko lurra lehenik Euskaldun guzien onerako nola hobeki kudea eta balia? Hortan da gakoa edo giltza.

ARTO ETA LUR BERRI

Ez ditugu horregatik aiantzi behar azken urte hautako aitzinamendu edo aurrerapenak. Eta guziz, Donapaleuko «Lur Berri» kooperatiberi esker egin direnak.

Duela 15 urte, lehen urrats handia hasi zuten arto amerikano hybridak Euskal Herrian sar araziz. Tokikoek baino gehiago emaiten zuten eta laster haien lekua hartu zuten. Ogiak gutiago emaiten baitu gure aro edo giro euritsuan, eremu asko artoari utzi daitzo. Amerikano aziakin batean, teknika berriak hedatu dira: onkailu etabar... Amikuze ta inguruko kantonamendu erdi zelaintzat, benedizioe bat izan da artoa.

Baina laster, traktorrari esker, etxalde hainitzak hertsiegi zirela ohartu da jendea: 10 hektarako bat bakoitzak, landa eta pen-tze. Ber denboran, zonbat larre kasik dekalde! Duela 8-10 urte, laborari bakar batzu lur berrien egiten hasi ziren. Bere izenak eta izanak manatzen dakoten bezala, «Lur Berri» sindikata lan horri lotu da, etxe-lur eta herri-lurretan. Baditu 10.000 hektara eginik

eta antolaturik 6 urtez, estatuaren eta kontseilu jeneralen diru laguntzarekin. Orai berean, «50 buldozer segurik ba dira Eskual Herrian barna, emeki-emeki, gure etxalden begitarteak erroz gora aldatzen ari direnak» (1). Etxalde ttiki frango 3, 4, 5 hektaraz emendatzen dira.

Bestalde, «Lur Berri»-n euskaldun teknikalari batzuek etxaldean hobeki antolatzeaz arta hartzen dute, S.A.F.E.R. eta F.A.S.A.S.A.-A.D.S.A. batasunen bitartez. Lehenak etxalde batzu erosten ditu eta, hobeki apailaturik, laborarieri prezio onetan saltzen. Bigarrenak adinetako nekezariak laguntzen ditu erretreta hobe baten bidez, beren etxaldeak gazteri utz dezazten.

Lur-jostea (remembrement) herri bakar batzuetan egina da. Beste batzuetan hasia edo laster egitekotan. Askotan baitezpadakoa.

Hazkuntzako gai ez diren mendi mazelak behar litazke zuhaitzez estali: alde hortarik ez da mogimendu handirik ikusten. Hara «Lur Berrik» hasten ahal luken beste sail bat.

HAZKUNTZA ETA SAL BIDEAK

Artoak behereko etxalde asko zinez azkartu ditu. Baina gaineratekoak, mendikoak? Beraz orai «Lur Berri» hazkuntzari lotzen da. Laborariak lagundu nahi ditu oilaki, arroltze, ardiki, zerriki, behiki egiten eta kontratuz saltzen. Arroltze kooperatiba zombait urte hautan ari da. Zerri hazkuntzako batasuna ere. Halaber ardikiarena. Orai behikiarena xutik eman nahi dute, 18 eta 24 hila-betetako kabale gizenen ardiesteko eta prezio segurean saltzeko aragitan, hemen egotxirik.

Gainerateko kooperatibak eta batasunak ere ez dira lo egon —Maule, Donibane, Baionakoak— baina ez dute Donapaleukoaren hedadura. Alde batetik han gure hiru probintzien erdian dago, Amikuzeko zelaian, tokirik aberatsenean. Bestetik bihien edo aleen kooperatiba, Ipar Euskal Herri guziko da. Xuxen da «Lur Be-

(1) Henri Duhau, «Herria», 20-6-1968.

«rri»-ko teknikalarien bitartez eskualde guzia lagunt dezan. Pundu hortaz kritika batzu entzun ditazke laborarien artean, han eta hemen, guziz mendi horietan, gehiegi bazter uzten dituela.

Ipar Euskal Herriak mendi asko baditu —nahiz hego aldeak baino gutiago— eta handiak dira menditarren nekeziak, Atarratzeko (Tardets) PITRAU laborariak erakutsi duen bezala. Hunek lan gaitza erabili du, gazteak bilduz eta argituz, bai eta boterea duten karguduneri finki dej eginez. Beraz bide asko egin da mendian azken urte hautan, buldozerrari esker. Ardi hazkuntza zinez emandatu dute Laborantza Gelako teknikalariak, «Fédération Ovine» delako artzainen batasunakoek, Mauleko eta Hazparneko nekezari eskolek... Bainan Roquefort-eko gaznetegiek esnea aitzinetik baino nekezago erosten dute. Tokiko gazna egin beharko dea neguan ere? Ala aragiari buruz itzuli?

Zer nahi gisaz, hazkuntzak berak ez dezake bakarrik salba mendiko ekonomia. Suizan bezala, industria behar da.

LABORANTZAKO ERAKASKUNTZA

Azken urte hautan, lege berri batzu agertu dira, nekezaritzako ikastetxe bereziak apailatzen dituztela. Lege horien arabera, bi sail edo mailetako ikasgiak izan ditazke, injinadore ta teknikalari eskolen azpian:

1. Mail laburrak hamalu urtetan hartzen ditu gazteak eta hiruzpalau urtez moldatzen laborari eta etxekandere gaiak. Gisa hortako ikastegiak baditugu:

— Mutikoentzat: Hazparnen, Donapaleun, Donazaharren, Maulen.

— Neskentzat: Hazparnen, Donapaleun, Urtaritzen, Urruñan, Donaixtin, Angelun, Mendikotan, Donibane-Garazin.

2. Mail luzeak ere hamalau urtetan hartzen ditu gazteak. Bost urtez apailatzen ditu baxoaren —bachilleratoaren— heineke 3 etsamin motetara. Bi eskola baditugu sail hortan arj direnak: Haz-

parneko eta Donapaleuko lizeak, biak mutil eta neskontzat. Beste biga izanen dira, guziz neskontzat = bat Uztaritzen, bestea Angelun.

Ikastetxe horik Baionako Diosesaren ardurapean dira, neskenak aldiz sesoren —monjen— meneko. Bainan Buru-Batzarrak laikoen eskuetan daude. Erakasle hainitzak ere laikoak dira, gazteak.

Sail luzea jarraikitzen dutenentarik batzu laborantzari lotzen dira. Hobe segur. Ez da batere kalte gure kanpaina edo baserrietan ager ditzen lur-langile gero eta argituagoak.

Beste batzu, nekezaritzari hurbil diren ofizioeri lotzen dira. Gaineratekoek, hirugarren bide bat hartzen dute, Unibersitateko ikasgia handietan sartuz: teknikalari, injinadore, zientzietako eskola edo fakultatetan...

Laborantzako eskoletan, gazteak ez dira bakarrik lur-lanaz ari. Bainan edozoin jakintzetan argitzen dira. Moltsa edo laguntza be-zeziak izaten dituzte, beste edozoin ikasgietan bezala.

LABORANTZAREN INTEGRATZEA

Duela urte zombait, euskaldun injinadore lagun batek (2) erraiten zaitan, guti gora-behera: gure laborantzak denbora batez segituko du hasia duen aitzinamendu edo aurrerapena. Lur berriak eginen dira. Lurrari gero eta gehiago emanaraziko da, onkailuen, azi onen eta teknika berri guzieren bidez. Pentzeak artoa bezain ongi artatuko dira. Hazkuntza uzten heinerat iganen da. Biziki ongi hori guzia. Baitezpadakoa. Bainan ez nahikoa, ez aski.

Laster laborarietarako elgarretaratu beharko dute, batasun eta kooperatiba batzuetan. Ez bakarrik lurraren emaitzen saltzeko. Bainan ere altxatzeko. Hobeki, merkeago eta errexkiago lan egiteko. Eta «Herria» kasetan bere asmua zabaldu zuen.

Lagun horrek arrazoina zuen. Orai edo laster, harek aipatu duen urratsa egin behar dute laborarietarako. Industrian bezala nekezaritzan ere, huna integratzearen edo konzentratzearen ordua.

(2) Jean Hirigaray.

Laborariek ez lukete sozietate kapitalisten aztaparretarat erori nahi. Beraz laneko tresnen eta lanaren batasuna beren artean egin behar dute, dela kooperatiba osoan jarritz, dela tresna batzu elgarrekin ezarriz. Hasiak dira, han hemenka, elgarrekin arto biltzen etab...

Suerte bat izigarria badute ipar Euskal-Herriko nekezariak: «Lur Berri» batasuna laborariena da. Bere estakuru guzien artetik, zer tresna! Horri bermatuz, gure laborantzaren integratzea, egin ditake kondizione onetan. Politikaren aldetik nahi dena pentsa bedi herri gizon hunek hartzen dituen bidez, bainan ekonomiaren aldetik ez ditake aski estima *ERRECART* jaunak egin eta jarraitzen duen lan ederra, sindikalari eta teknikalari gaztekin.

Halere erran behar da Ipar Euskal Herrian ez dela sindikalismarik, nahiz badiren sindikalistak. Nekezarien buruzagiak ekonomiako batasunetan zinez ari dira. Bainan pentsaketen egiteko eta planifikatzeko batasunak eskas dira. Geroaren arrenkura edo kezka aitzindari zombaiten gain dago. Eta hurak gabe, zer? Pundu hortan badugu zer egin.

INDUSTRIAREN BEHAR GORRIA

Laborantza ez dugu aski. Ez ditazke denak lur-lanetik bizi. Baitezpadakoa zaiku industria.

Denbora hautan biziki aipu da seien Europa ttikian *MANSHOLT* jaunaren plana. Laster jakinen dugu agian Europako sei gobernuek zer egingen duten hunek proposatzen dituen xedeez. Huna larri-larria zertaz den auzia.

Duela 20 urte, baziren 20 miliun laborari seien Europa ttikian. Orai 10 miliun dira. Pentsatzeko da beste 10 urtez 5 miliunetara jautsiko direla. Mansholt jaunak sail hortan lagundu nahi ditu, batzu nekezaritzan hobeki artzen, gaineratekoak beste ofizio bati lotzen.

Bere aldetik, huna Errecart jaunak zer idazten zuen «Herriari»-n urriaren hamarrean: «Irakurtzen ahal duzue egun oroz zertarat duten heltzeko xedea: ehunetarik 7-10 laborari, 40 usinetan eta bertzeak 'secteur tertiaire' edo 'services' deitu ofizioetan».

«Horrek erran nahi du Eskual Herri guziak izanen duela (Lapurdi, Baxe-Nabarre, Ziberoan) hamar mila bat laborari nunbait han, eta orai dituen 40 miletarik, 30 milek beharko dutela ofizioz kanbiatu. Bai, hogoi-ta-hamar mila soberakin horiek beharko dute gehientsuek hirietan bizi, eta ez, hurbileko hirietan, zeren indutriak gero eta gehiago elgarretaratzera baitoazi: gisa hortan hogoi milek segurik beharko dituzte Eskual Herriatik lekuak hustu».

Uste dut jaun horien ikusteko era xuxena dela oro har, larrilarria. Halere geroa ez dut hain ilun ikusten. Laborarien lerroa laburtuko dela, bai segurki. Bainan Euskal Herrian badugu aro bat —giro bat— paregabea, zoini esker bestetan baino eremu hertsia-goetan atera baititake mozkin gehiago. Beraz hemengo laborarien nonbreak ez luke behar behere horietakoak bezainbat gutitu. Are gehiago, toki batzuetan emanda ditake *BARATZEKARIERI ESKER*. Alde hortarik ikusgarriak dira *ETXAMENDI* batek Bitirñan egin dituen plastikazko barne hetsiak edo aterbeak.

Hala ere, laborantzaz besterik behar dugu: turismoa laguntza bezala, bainan oroz gaintek industria. Apailatu behar dugu. Bereziki gazteek ikasi behar dituzte ofizio berriak.

Mementoan ez dugu mentura handirik. Parisek turismarentzat dauka gure eskualdea. Bainan gazteek ez dituzte goiki erabakiak hola onartzen. Egiatzko planifikatze bat eta zinezko eskualdekatze bat beharko da. Etorriko da eguna. Zeren Euskal Herriak baditu lentegi azkarrak ausarki... Bidasoaren ezker aldean!

Hanartean, industrialisatze zerbait hasten ahal litake laborantzako ekeietarik. «Lur Berri-ko buruazagiek hori ere gogoan dute.

NEKEZARI SINDIKALISMAREN BASA-BATASUNA, EUSKALDUNEN KALTETAN

Nekezarien sindikalismaz beste erran ditake. Eta guziz Euskaldunentzat zoin kaltegarria den sindikalisma horren sasi-batasuna.

Frantziako estatuan badira 1.500.000 etxalde. Horietan, 270.000 dira mutilekin edo morroiekin lan egiten dutenak. 1.000.000 etxalde 20 hektaraz petik dira, eta orok elgarrekin egiten duten mozkinak doi-doi balio du Parise aldeko ogi altxazale handiek egiten dutenaren 1/3.

Laborantxaren laguntzeko, eta guziz saltzapenen laguntzeko, gobernuak urtekal emaiten du miliun bat libera zahar bederen laborari bakoitxarentzat. Bainan diru horren parte handiena ez doa nekezarietara, bainan nekezarien gauzak saltzen dituzten arartekari gotorretara. Halere, laborariek hunkitzen duten laguntzatik % 60 badoatzi laborari, aberatsenetara (% 20).

Laborari ttipiak (1.000.000 bederen) gero ta gehiago integratzen dituzte sozietate kapitalistek eta koperatibek. Handiak horietaz baliatzen dira beren interesen zaintzeko. Sindikalisma Parise aldeko ogi altxazale handien eskuetan da. Sasi-batasunak ez du beste arrazoinik: 400 organizazione barne ditu, elgarren artean batera aburu berekoak ez direnak. Bainan basa-batasuna beti nagusitzen da, Parise aldeko laborari aberatseri esker eta heien onetan.

Bi laborari klase ba dira beraz: industrial bezala jokutzen ahal direnena eta langileeri hurbil direnena. Ikusi dugun bezala, gehienak bigarren klasakoak dira. Ipar Euskal Herrian oro, edo kasik, beste etnia edo populu alienatuetan bezala.

Laborari gehienen interesa litake langileekin eta abertzaleekin bat egitea, eskualdekatze demokratiko baten alde:

- tokiko laborantza tokiko jendeak planifika eta kudea dezan, tokian behar den bezala;
- eskualdeko gobernuak industria berriak beharra den lekuan eraiki ditzan, laborantza utziko dutenentzat;

— sozietate zuzenago bat eskualdeko jendeak antola dezan, populuaaren beharren, ahalen eta kultura bereziaren arabera.

Bretainian, Bretainiaren alde lan egiten hasiak dira laborari sindikalistak, langileekin eta abertzaleekin.

Ipar aldeko Euskal Herrian ez dugu oraino holakorik. Piramidak maite ditugu, eta bereziki piramideri petik-goiti so egitea: pean Euskaldun nekezari ttipiak, menditarrak, hazkuntzatik bizi direnak; buruzagitza, Paue aldeko arto altxazale gotorrak; eta zero goihenetan, bistan da, Parise aldeko laborari industrialak.

Hola behar omen da, bestelan gaizki litake. Ordrea maite dugu, ordrea. Berezi gure kaltetan delarik. Zergatik eta noiz arte?

J. L. Davant

EUSKAL HERRIKO FRANTZES IDAZLEAK, PARISEKO ZERUAN

Orainarte, Enbata aizeak ez du Frantzi aldeko Euskal Herrian ez euririk, ez elurrik ekarri eta gure erdal uztak xuhurrak eta eiharrak dira. Olerkarien artean Pierre Espil lapurtarrak frantsesez idatzi du eta Maider d'Andurain andereak ere; frantses hizkuntza irakurzale guti da eta beren alde honen gatik bi idazle horiek Pariseko zeruan ez daukate lekurik. Joan den urtean, ordea, **Salvat Etchart**-ek, **Le Monde tel qu'il est** eman zuenean, 1967-an **Teophraste Renaudot** sari «famatua» irabazi zuen. Alageratzen nintzan euskeraz deusere emaiten ez zutenek, azkenean frantsesez zerbait egiten baitzuten; baina atzerri hontako literatura sariak demagogia itzalpean emanik direla dakigularik, duda batekin nengoan. Zori txarrez zer saltsa iretsi behar ukan dudana. Hona kozinaren sekretu ageria. Etchart-ek buru ta buztan gabeko «tableau» puzkakinak biltzen ditu, alkarri ahal bezala josten. Aspilkura, goropilo, itsusienen gordatzeko, estaltzeko «nouveau roman» delakoen Robbe-Grillet-ek hai xotilki erabili hitz metatzean entseiatzen da. Nola moldegaiztasunarekin! «salaud» «nom de dieu» frango jatorrago egiteko, gaineratuz.

Fontsaren aldetik, bederen, printza batzu balira? Betiko basa-egiak: Antilletako zuri **guztiak** urde batzu dira, multrak **oro** traidore maltzur batzu; bakarrik beltzak dira onak, naturari hurbilenak, hurranenak. Biba beltzak! beraz. Zuri batek bere burua zuritzeko emazte beltz batekin ezkondu behar du! Ederki antirazista, hola izatea, baina multrak mespretxatzen diranean, nola? Beltz batekin ezkontzen den zuriak ez ahal ditu, hurre nabarrak, multrak emango? Paradoxari Etchart-ek ez du kasurik egiten. Eta liburu osoan herri hartako jendeen nortasuna

alferretan bilatu zenezake, areta ba daukate! areta begiratu nahi dute!
Ez Antilletako problema bakarra, han sozialismua jartzea da.

Aski neretik, orain aldika haren errutetik:

«C'est un homo jeune blond sexuel neuf mais cassé à la chemise déboutonnée à la moissonneur sur un petit corps pétri des cendres de Sodome et de la graisse des super-markets». Hona arrautze hobea, kuskuarik deusere aldatu gabe: «Il L'a attachée montée sur Elle morte maintenant non c'est pas vrai les femmes les filles tout le monde le fait ça fait pas mourir depuis le départ de la première course une fille de Bois Rouge je crois non non pas moi même quand je serai grande petit frère planté devant la porte des W. C. sac à provision qui pèse, qu'il pose sur le bout des pieds à cause de la boue barre le passage des grands yeux épouvantés tellement ça pue ça cocotte terrible le pissat des fumelles sac posé sur un pied, sur l'autre, tire sur le bras il est lourd voit plus rien des fesses de tout le monde il voit des culs des jambes sus les jupes et si on donne le départ de la course de mulets?» Idaz tankera baten egiteko, errez da puntuazioa guztia kentzen da eta frantses mintzatuan idazten, baina aspaldian hobeki egin du Céline-k bere «Voyage au bout de la nuit» delakoan Etchart-ek «Voyage au bout de l'ennui» eragiten du.

Halere gorotzean ere, arto aleak edireiten, aurkitzen ahal dira. Laurehun orrialdetan: «Galba beltz gerillero gorriaren ihesaldia, haren eriotza, haren autopsia, liburuaren zati honak dira; hor Etchart bere **intellectuel de goche**, eromantismua baztertzen baitu. Nahiz Antillatarren gisa, beltzen gisa, pentsatu nahi duen Etchart-ek zuri guztien humekerietan, ximplekerietan erortzen da: nahi ala ez teknika zuriak eman bizi molea hoberena izaki, beltzek zuren gisa bizi behar lukete; ohitura izan ala ez izan, klimatak ezberdin izan arren. Nere gain Pariseko «ñabar» bati herritarren berriak eskatu dizkiot. Harentzat hirur problema nagusi badira, bata hume eta jende gehiegi herri txiki barentzat, bestea Frantzira datorren beltza «erbestetua» dagola, herrian hartu alfer ohiturak nekez galtzen dira. Azkenik beren artean oso razistak dira, larruaren belztasunaren arauera ezin ikusiak badira, eta ezkontzeko trabak, nahiz «bastarten» egiteko behaztoporik ez.

Izkiriazale batzuen gandik, nahiago genuke modetarik, ideologietarik, apur bat hurruntzen ikas dezaten, egiazko jakileak, lekukoak izateko. Gure «écrivain engagé» delakoak hain hurrun «engajatzen» dira ez baitute lehenik ongi ikusten, azkenean itsutu egiten dira. Sal-

vat-Etchart-en liburua azkenean urrentu, bururatu dut eta ahoan zer gozo, gogoan zer lano utzi daut? Iduri zaut euskaldun frantses bat edo franco-basque bat mintzatzen entzun dudala, ba dakizu, beren frantses gaistoa, sudurmintzo batekin, euskaldun bilkuretan entzunarazten duten haïetarik bat? Ber molde gaiztasuna, ber populismua. Horrek ote ditu hunkitu Jury-eko bourgeois handiak? **Pour épater le bourgeois** egin lan horrek ez du nehor ohoratzen ez sari emailleak, ez idazlea, ez eta gure herria. Naski ongi saldu da. «Prix» delakoen erosteko moda dago, ez irakurtzeko bainan standian-aren seinale bezala mahain batean, liburutegi batean, etxen agerian uzteko «au courant» eta «cultivé» dela erakusteko. Etchart-ek ez du batere argitu Antilletan gertatzen dena, egilearen sakelak bete baditu ere. Frantsesek konparatzeak maite baitituzte batek erran daut Miguel Angel Asturias-ekin bardintzen ahal zela; alde batetik Etchart-ek bere buruarekin bardintzea baizik eztu merezi eta Asturias-en hoinera ezta heltzen.

Gure Europako idazleak hiritarrak dira, gutitan ditu gure egunetan, laborariak, lur langileak inspiratzen. Orainarte laborariak apez eta soldado emaille iturria zen. Gure egunetan hirietako proletariata berria emaiten dute. Laborarien arra-semeeek idazten hasi dira iturria ahazturik; franco-basque delakoek ez dute sekulan beren herria alpatzen, ez maitatzen; eritasun bat dago alan ari; gure aldetik euskal ekintza «txistukerietan, fandangokerietan» erori da. **Le style c'est l'homme** dio frantsesak, gure idaz-tankerak, gure idazleek Frantzialdeko Euskal Herria Antillak baino koloniago dela ispirituan, eta lanaren aldetik gaizki-debelopatua.

D. PEILLEN

LIBURUAK

EUROPA.—Jakinariek.

10 saiakera interesgarri Europear Alkartasunaren gain.

FILOSOFIAREN KONDAIRA I.—Jakinariek.

Filosofiaren Kondaira osoa euskeraz eman nahi luken bildumaren lehen zenbakia.

JAINKOA.—Kristau Fedearen Sustraiak.—L. Villasante.

Sinismenaren zergaitiak eta oñiarri beharrekoak. Teodizearen argitan.

LAU EBANJELIOAK.—Mendizabal-Goitia.

Goxoki ta herrikoi emanak. Goitia eskritulariaren ohar baliotsuekin.

EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.

Euskal Verboari buruz gaurdaino egin den azterketarik sakonena ta garbiena.

LAS 7 LECCIONES DE EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.

«Euskal-Aditza»-ren osagarri eta laburpen argigarria.

ELORRI.—Bitoriano Gandiaga.

Olerkiak. 1964-ko «Jose Antonio Agirre Saria», azken lau urteetako euskal liburu onena bezela saritua, alegia.

EUSKERA.—Iñazio Omaetxebarria.

Gure hizkuntzaren azterketa bat, euskera irakasteko egia.

10 %-ko deskuentoarekin hartuko dituzte liburuok JAKIN'en arpedunak.

ESKATU: Dirección de JAKIN - Arantzazu - Oñate (Guipúzcoa)